

ZAR

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

165n. Zenbakia Uztailla-Garagarrilla
eta Dagonilla 1992

BEREZIA



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE

BEREZIA



EUSKERAZALEAK ALKARTEA (1967-1992)

ZIDARREZKO EZTEGUA:
(San Anton'go eleizpean)
(1992-6-20)

LENENGO EKINTZA: EUSKERE ESKOLETARA



Sortu-barria zan Bilbao'n EUSKERAZALEAK ALKARTEA, euskerea erabiltea bere elburu lez artu eban alkartea. Sortze ori 1967'an izan zan.

Eta alkarte onen lenengo ekintza, ikastola, eskola eta ikastegi guztietan euskerea erabilteko eskaria egitea izan zan, irakaskintza-mailla guztietan euskera erabiltekoa Alkartearen elburuen barruan oso-osoa sartzan zan eskaria zan: Zelan lortu euskerea erabiltea ikastola ta eskoletan euskerea debekatuta egoala?

Eta ekintza orren barruan lenengo egin ebena, agiri bat zabaldu eta erritarren aldetik izenpetzea izan zan: Irurogei milla bizkaitarrek, geienak Bilbao'tarrak, izenpetu eben agiri ori. Izenpetzaille zenbakia ba-zan Madrid'en eragiña lortzeko bestekoa.

Izenpetze guztiak bear zan lez moltsotuta, bost liburu lodi osotzen ebezala, Madrid'era joan ziran EUSKERAZALE ameslari areik, orduko EUSKALTZAINDIA be izenpetzaille zala.

Madrid'en Lenengo Maillako Irakaskintzarako Arduradun zan Eujenio Lopez'egaz egon ziran. Au galiziarra zan eta emendik joandako euskaldunak bere izakera ori artu eben kontuan aurkezkunda egin ebenean. Onela, gitxi, gorabera, berba egin eutsoen: "Zu galiziarra zara eta zalantzabarik zure etxean galiziarren izkuntza erabilliko dozu". Eta berak baietz esan ondoren onelan jarraitu eben: "Gu euskaldunak gara eta geure etxeetan euskererea erabilli nai dogu, baiña ori ezin lortu gure umeak ikastokietara doazenean erderaz berba egin bear dabela. Orregaitik dakargu eskari au gure ikastokietan euskerea erabilteko eskaria, eta asko

poztuko gintzakez eskari au onartua izateaz. Gugaz batera agiri au izenpetzen dabe irurogei milla euskaldunek eta beste euskaldun asko eta askok".

Arreta aundiaz entzun eutsen Eujenio Lopez jaunak eta ori lortzeko alegiña egingo ebala berbea emon be bai.

Olakoetan beti jazoten dan lez, ez da gauza erreza eskari arek noraiñoko indarra izan eban jakitea. Gero gauzak asko aldatu dira eta eskari ori be bete da, zori onez, zergaitik edo agaitik. Baiña iñok ez dau ukatuko egoera aretan eskari ori oso egokia izan zala eta ondoren batzuk beintzat, zalantza barik, lortu ebazala: Bilbaotarren eta bizkaitarren ardurea bizkortu euskerearen alde jokatzeko, erakundean eginbearra argitu errien eskubideak eta onein artean izkuntza erabilteko eskubidea aintzat artu dagien, irakasleen buruak argitu eskubide au ikusten asi eitekezan, gurasoen gurariak bideratu euren eskubide au aldeztan asi eitekezan eta, bear ba'da, lege-giroa bera aldatzeko bideak artzen asi.

Emen alboan argazki bat agertzen dogu, argazkiak dira izan be, barriai iraunkortasuna emoten dautsenak. Madrid'eko ABC izparringitik artua da, 1968'ko urrillaren 31'koa eta alboan daukan laburpenak onelan diño, euskeratu ezkeron "Euskaldunen izkuntza eskolara. Irurogei millak izenpetu dabe Euskaltzaindiaren eskariari indarra emonez, irakaskintza-mailla guztietan euskerea irakastea lortzeko. Idazki au Euskerea Erabiltearen Aldeko Alkartea'ren Batzordeak aurkeztu dautso, Lenengo Maillako Irakaskintzaren arduradun dan Eujenio Lopez jaunari".

OLAZAR'TAR MARTIN'EK

"EUSKERAZALEAK: URTE-URREN ZORIONTSUA"

Aurten, gure EUSKERAZALEAK Alkartek bere ogetabostgarren urte-urrena ospatuten dau, bere lan txalogarriari asiera emon eutsanetik, 1967 urtean.

Urtea areik (irurogetakoak) oso gogorak ziran geure izkuntzarentzako, bai Bilbao'n eta bai Euzkadi osoan be.

Geure elea oso txarto ikusia egoan, arlote eta basatien berbeta ba'litz lez, bai Francotarren aldetik, eta, tamalez, emengo jende askok be, beste orrenbeste pentsaten eban.

Giro orretan jaio zan EUSKERAZALEAK eta on dala-eta, guztiz ausarta eta kementsua deritxat Alkarte onen sortzailleak artutako erabagiari. Oztopo eta eragozpen guztiak gaindituz, gogotsu ekin eutsoen euren elburuari: euzkerea irakatsi eta zabalduetea Bilbao'ko toki guztietara, eta emetik Bizkaia osora be.

Peña'tar Xabier, Ziarsolo'tar Manu ("Abeltxe"), Landajuela'tar Andoni, Etxenagusia'tar Karmelo, Montiano, Urkiko eta beste ainbat euskaldun zintzok euzkerearenganako maitasunez alegin itzelak egin zituen bera aldeztutzearen, eta emoitz bikaiñak lortu be.

Danetarik egin eben: Liburu asko argitaldu, ikasturteak eratu, euzkera ikasteko ikasbide errezak (Pella eta Etxenagusiarenak, esaterako), eta polito, polito, aurrera egin eban gure berbetak.

Urteak igaro dira eta gaur egun beste aldi batzuk bizi doguz. Francotarrak eta euren agintaldia joan ziran eta orain, erabide-sistema barri bat dogu: Erri-agintaritzza edo democrazia eldu jaku.

Euzkerek, baiña, etsai barriak aurkitu dauz. Oraingoan, euskaldunen artean. Ori, zoritxarra! !, aztu barik beti izan dauzanak, jakiña.

"EUSKERAZALEAK", bere aldetik, or daukagu bere eguneroko egitekoa egiñez.

Jende barria sartu da, gogoz eta egitismo

parebakoak dabezala, eta gauza onak egin dauzanik, ezin ukatu.

Or doguz, esaterako, "Bizkaierearen Astea", "ZER" aldizkaria (Bizkaia'n, bizkaitarrok daukagun bizkaieraz egindako aldizkari bakarra), ipuin-sariketak, Euskal Egutegia.... eta abar.

Ikusten dogun legez, lan ugari ta oparoa, eten barik, aurrera egiñaz eta dan-dana euzkerearen mesedean, laguntza gitxi jaso arren (ba-dakigu: "h" barik idaztea ez da aurrerakoia ("progresis-tea"), ezta jakintza ("kultura") be).

Alan da guztiz be, OGETABOST (25) URTE bete egin dauskuz, bata bestearen atzetik, Alkarte emonkor eta onuragarri onek.

Eta on ez da gauza erreza. Ez jauna!

Origaitik, merezi dauz euskaldunen txalo beroa eta esker-ona.

Bera, EUSKERAZALEAK, izan da eta da gure izkuntza jator eta garbiaren aide (ez zaiteze nastau: au esaten dogunean betiko euzkerea aitatzen dogu eta ez orain sasi-jakintsu batzuk asmatu dauskuen erdalkeri ori) geien eta ondoen alegindu ta aleginduten dana, bai Bilbao erdaldun onetan eta Bizkaian be bai.

Ordua da, ba, bakoitxari berea emonaz, Alkarte oneri ezagupide ta eskerrak emoteko. Eta noz aukera egokiagorik, aurten baiño?

ZORIONAK ETA ESKERRIK ASKO, ba, EUSKERAZALEAK, egin, egiten ta egingo dozun lan guztiagaitik, ixillean eta apal-apalik baiña beti aurrera; zure sortzaille, laguntzaille eta emoitzak gogoan doguzala.

1992ngo Lorailaren 21 an.

"KALAMUA"

AITA SANTI ONAINDIA'K

(ASTELENEAN)

Gaur, Euskal Astearen lenengo egun onetan, Aita Santi Onaindia dogu izlaritzat, eta "Abeletxe" idazle aztu-eziña ta begikoari buruz, izan be. Gitxi aurkitu daitekez Aita Santi lakoak, "Abeletxe"ri buruz jarduteko, ondo bai ondo ezagutu ebazan, bera ta beronen idazlanak.

Orain, baiña, eta niri dagokidan ezkerro Aita Santi'ren aurkezpena egitea, esan dagidan labor-labor, niri entzutera ez zarie etorri-ta, berari buruz zeozer.

Edozelan be, Aita Santi gure karmeldar ospetsuak, ez dau iñoren aldetik aurkezpenik bear, oso ezagutua dalako euskereari dagokiozan alorretan, eta literatura edo elertian batez be. Zillegia bekit, baiña, beragan iru atal bereiztea.

1. Elertiaren saillean, berak egiñikoari gizandi baten ezaugarria dario. Nik, here "euskal Literatura"ren bost aleak irakurri nebazanean, abo-zabalik geratu nintzan. Ain zuzen be, ez dau lan makala egin, ezta ordu gitxi erabilli be idazian bikain au osotzeko. Nire ustez, edozeiñek euskal elertiaren munduan murgildu gura ba'dau, nai-ta-ez aita Santi'ren lan bikain on aztertu bear izango dau.

2. Olerkia'ren saillean egin dauana, arrigarria da benetan, Bera olerkari bikaiña da, eta au egiztatzeko ez da besterik bear, bere zenbatu-eziñeko olerki eder-eder-rak irakurri baiño, arima-barruko sentipen gorenak txastatzeko. Onezaz gaiñera, olerki-bilduma gain-gaiñekoak atondu dauz, baita aalegin etenbakoaz guztitariko olerki-leiaketak atondu be, besteakan olerkigintzarako adorea piztuteko.

Bera izan dogu urte illun luzeetan, olerkaritzaren sua piztuta iraunerazo dauana, zenbatu-eziñeko oztopoak gaindituz.

3. Idazle ugari ta on-ona da. Oso luzea izango litzaikit Aita Santi'k idatzitako liburuen zerrenda emen emotea, eta orretarako astirik ez dagoan ezkerro, aurkezpen oneri amaia emongo dausat esanez, antziñata-sunaren klasiko askoen idazlan bikaiñak euskeratu dauzala, eta oneik irakurtean, here esku trebetik beste munduetan zear garoaz, zelanbait, gure eder-miñari erantzuna emonez.

Zuekin orain, beraz, Aita Santi.

ZUBIRI'TAR IÑAKI'K

ZEARSOLO'TAR MANU (1902-1987)

Jaun andreok:

Euskalzale erakunde onek 25 urte beteten ditula-ta, aste onetako itzaldiz ospatzen dagoan ezkerro, niri eskiñi dauste lenengo eguneko arazoa. Zertaz gero? Urteetan zear erakunde onetan lan egin dabena buruz, batez be. Merezi dabe, eta orrela egingo. Nik Manu Ziarsolo aitatu dot, idazle, ipuinlari eta olerkari, iru gaiok sakonetik azalduz.

Nik onan idatzi neban "Bizkaiko Olerkariak" liburuan aren bizitz-zeaztasunak emokeran: "Azken urteotan bizi izan dan lez, itxil-ixillik joan da Aitaren etxera gure Manu Ziarsolo, "Abeletxe". Begoña'n ospatu ziran illetak, here arimearen aide, joandako irailaren 20' an. Era asko daukaguz gizona ezagutzeko, arpegiz, berbaz, alkarregaz bizi izanik, ar-emonak eukiz, eta abar. Nik ezagutu izan dot Manu kartaz, artu-emonez eta iru-lau bider San Mames kaleko here bizi-pisuan alkar-izketak izanaz".

GIZONA

Bilbo'n jaioa zan Manu. Gorputz eta arimaz errime, garai ta sendoa; mentu onekoa, gurasoen antzera. Bilbo'n jaio ta Bilbo'n lan egiñez bizi, beti zintzo ta eroapen aundiko; beronen idatzietatik ikusi daikenez, euskaldun biotz aundiko; agaz naiz onegaz edo-noiz maitekor, izakeraz baikor eta gozo; ez lotsor, ez nagi, lanerako zoli, eskuz naiz lumaz ari nai oni laguntzeko, beti gertu.

Arima aldetik, gurasoak erakutsia zaintzen egundo nekatu etzana; Jainko-zale ta fedetsu, ez etxean, ez kalean, zer-esanik izten ez ebana; adiskideekin zintzo ta zurra, izketari bipilla, au da, benetako bilbotarra; bazituan here akatsak, baiña errez estaltzekoak. Labor esanda, euskaldun jatorra.

Onela jarraituz au be idatzi neban nik "Euskal Literaturan: "Giza-seme langillea, umoretsua eta antzerkiari emona... Itxas-ertzeko aizeari kresalsunda darion legez, umoren onaren piperra be berezkoa dogu: Ipuin eta esaera bizi-bizien gatza barriz egundo be ez jako falta euskaldun erneari. "Abeletxe" ezizen onegaz dogu ezagun gure literaturan".

Idatzi egin eban Abeletxe'k eta gizona geienbat here liburuetatik ezagutu oi da; emen izten dau bere irudia, an letxe, here arimea oso-osorik, naiz-ta guk saiatu arren, bera arrapatzera, oso-osorik beintzat, nekez eldu; ezta arritzekoa, gizasemea misterio aundia da-ta. Eta gu ez gara gai misterio aundiak beingoan geuganatzeko. Aren gauzetan luzaro ekinenez, baiña, beti jadetsi daroagu zerbait.

Idazleak gai askoz erakusten dausku nor eta zelakoa jakun idazlearen barrua. Poeta jakun Abeletxe eta poetak here bertsoetan izten dau bere nortasuna dardarka, bizkor edo epel, asarrekor edo baketsu, garbi naiz lizunkor. Irakur egizu astiro edozein olerkari, edozein izkuntzatan, eta laster jakingo dozu zein motakoa zenduan. Ipuinlari zan Abeletxe, eta gatz-pikorrezko umorea naitanaiezkoa jako ipuin-idazleari; antzerkiak osotu zitun Abeletxe'k, eta teatroan ugari eta aurrez jalgi bear dira arima-zatiak.

Idazleak, bada, zelako gaiak erabilli ta azaldu eban, ortik laster igarri geinke zelako gizasemea dogun idazkortza erabilli ebana, azkorra naiz motela. Gure idazleak here bizitza guztian ekin eutson idazteari, eta or, here idatzietan daukaguz here aragia ta odola, here euskaldun arimea dardaraz.

Etzan izan gero azken-orduko idazlea. An gure azken-gerratean, gudua amaitu ez amaitu egoalarik, ni Elgeta'ko guda-oiñean aurkitzen nintzala, gau luzeetan irakurteko be zerbait bear genduala-ta, euskera utsezko izparringi bat sortu zan Bilbo'n, lau bat langille izan ziran bertoko lana antolatzen ebenak, eta Abeletxe genduan euron buru: guk frentean oso atsegiñez irakurten genduan: euskera gozo ederrez etorren eta egizale utsa genduan. Bost bat illabete iraun eban aldizkari onek gure idazlearen zuzendaritzan Augustin Zubikarai, Luzear, Markina-Etxebarriar apaiz argia ta beste batzuk idazle lagun eta Artetxe'tar Luki aolkulari ebazala.

IPUINLARI

Literaturan erri-alde bakotzak ditu bere griña eta zaletasunak, eta atsegin jakona dau gozotasunez irakurten. Euskaldun baserritarrak ordu luzeak bota oi dabez, negu-egun eta gabetan batez be sukaldeko laratz ondolan; ortxe, sukalde biran aititak eta amamak euren seme-alabai erakutsitakoak dira ipuin-pilloak; antxiña-antxiñatik geuganaiflo eldu diran kontaketa jatorrak, zarrak dirala be guztioi atsegin jakuzanak.

Nok ez ditu maite, gaur be, etxeko biotz beroa dakarskuen eskaratzeko su-miin gorri-biziaren mosu epelak? Gure aurretikako sorturiko jainko guzurrezko saille, urtez urte eta mendez mende errepikatuak, beti

eder, beti zoragarri, gure erriak iraun-azoak eta azken urteotan, gure asaben filosofiaz lilluraturik, Azkue'k eta Kirikiño'k, Mañari'ko Errose'ek eta Lezama'ko Zarate'k, eta beste ainbestek batu ta zabalduak, eta gizaldietan biziko diranak, eder-ederrak ditugunik ezin geinke ukatu.

Mari euskal-jainkosa, odeiak zear egazka dabillena, an eta emen, Anboto'n ez bakarrik, ainbat egoitza dauzana. Leza-zuloetan adiskideak ditu bere esaneko. Egizale da eta guzur-esaleak zigortzen ez da aspertzen; lurpean ainbat irudi daukaz, zezen-irudiak, aunts, idi, aker-irudiak. Onen ingurukoak dituzu sorgiñak, lami-flak eta aztiak be, sorgiñak gaiztoak eta lamiñak onak; ez Zugarramurdi'n bakarrik, euskal erri osoan zabaldu ta agiri diranak. Basajaun eta jentillak, eta azkenez urtzi, goiko jainkoa.

Ipuin labur ariñak dozuz Abeletxe'k osotuak euskal piper-miñez aseak. Entzun labur au, askoren artean aukeratua:

– "Pello-Koxe, Koxe Pellipegana joan zan kontesju billa. Onek:

– Zer jazoten jak, ba?

Ezkontzeko aukera bi joagaz. Bata, alargun aberatsa dok, baiña etxoat maite. Bestea barriz, oso txiroa, baiña maite-maite joat. Zeñegaz ezkondu?

– liño! Olangoetan biotzaren deiari erantzun bear izaten yakok, mutil! Ezkondu adi txiroagaz!

– Eskerrik asko. Orixe egingo joat. Deituko dauat garaiz ezteguna.

– Aizak; aide baiño lenago esaistak: Nun bizi dok alargu on?"

Naiko idatzi eban, bai bertsoz eta bai itz-lauz, Karmen' go Amaren Egutegian; Oleri eta Karmel-en batez be, nik zirikatuta.

1976'an liburu bat argitaratu eban, "Gazi-gezak" (Donosti'n) 164 orrialdekoa, ipuin-liburu bipilla, gatz-ozpiñez gaiñezka. Auxe da Abeletxe'ren gogo-uzte euskalduna.

ANTZERKI-LANA

Antzerkian be, Grezia'n asi eta gaur-egunerarte landua izan da literatura danetan komedia deritxogun sail egokia. Abeletxe'k be landu eban gai au eta ez edozein bertsoak, esakun zorrotzak eta izkirimiriak. Idazleak ba leiteke bere poz-atsegiñerako idaztea, teatrua barriz entzuleentzako da geienbat. Gure erriak be, bere idazleen artean izan dauz onakoak, leen eta orain. Mugaz bestalde or daukaguz Zubero, Baxenabarra ta Lapurdiko Pastoralak, aintxiña-aintxiñakoak, gaur egunean noizik bein, arrakasta aundiz, antzeztuten diranak. Iparraldean ez-ezik, egoaldean be teatrulari erri-

EUSKAL ASTEA

meak ezagutu doguz; gerra aurretik Tolosa' n argiratzan zan "Antzerti" teatru -aldizkaria, bizkor jakingarria, bertoko idazlerik onenen lanez biribildua; gerora be, naiz-ta gitxiago, idatzi izan dira eta erririk erri emon; baita itzulpen ederrak egin be: or beste batzuen artean ingles antzerkilari ospetsu -ospetsuaren Komedi, Drama eta Trajediak, bost aletan, Kardaberaz taldeak Gasteiz'en argitara 1974'an emonak, Benito Larrakoetxea'k bizkaierazko euskera gozoan itzuliak, beste asko aitatu barik itxita.

Abeletxe'k, gurasoen altzoan ikasi eban euskera jagian ainbat teatru-lan bitxitu euskuzan here bizitzan zear, here sasoian Bilbo'n arlo orretan lan egiten gazte-taldeentzat osotuak asko ta asko, au da, "Txinpartak" eritxon gazte talde alaiarentzat berak gertatuak, Manu Sotak eta, artzen eben parte, urtean zear, ez ebezan urtenaldi gitxi be egiten euskal errian zear euren lan bikaiñak erakusten.

Ak eta onek zerbait antzeztu nai ebenean, alde z aurretik, eskatu oi eutsoen lan egoki bat, eta Abeletxe'k ezin ezetz esan. Bereak ditu lan oneik: "Jai arratsaldeko batzarra", "Goiz -otoitza", "Afal orduan", "Bermio ko portuan", "Atsoa gaztetu bear dogu", "Gabon-gabonetako", "Jai aurrekoa", "Sorgiñak Etxaburu", "Eztegu-erdi", "Katalin errotako", "Agur Donibane", "Saku jantzia", "Bertsolari sariketan" eta besteak. Onenak barriz, antza danez azkenengo irurok: "Eguberri aizeak", "Bertsolari sariketa" eta "Gogoko berbizkunde".

Erriak, izan be, komedi eta olakoetan piper-miña eskatu daroa, entzulea poztu barnean eta ezpanetara irribarrez loratzeko. Eta Abeletxe'ren lanai ez jake falta ez poza sortu oi dauan berarizko grazia eta poz orren izugarria dan ezpan-ertzetako larrosa oparoa. Berekian Manu'k ikuslea asetzen; lan luzeegiak sarri aspertu egin daroa ikustea, eta Abeletxe'k on gertatu ez eiten, lantxo laburrak egiten zituan geienez. Izlariak, idazle eta olakoak ikusle-entzuleak ez dau jentea albo-etara begira edo-ta jarlekuari zirkinka itxi bear, ordua aurrera doala be, geiago-guraz laga baiño.

OLERKARI

Manu, azkenez, olerkigiña ta Abeletxe etziran, egia esateko, bitxi-billa ibilli euskal lanak osotzean, alan be biak ekien edertasuna nun egoan eta zelan adierazo; biak ondu ebezan olerkiak. Manu'ren bertso txanbeliñok garai artako aldizkarietan daukaguz. Nik sorturiko "Karmel" eta "Oleri"-n aurkitu geinkez geienak, asiera-asieratik aurkitu be. Irakur "Odol tantoak" eta Aste ipuiña, bertotan, poema luzea, lau sail daukazana, 48 aapaldigaz.

Noemi ebertain andra gaztea zan, ama izan izan naiez eta lau urte ezkondata eroan arren, umerik ez eukana. Olerkariak onela:

"Emazteak seiña nai; senarrak naiago,
Irain zorrotzak aitzen asita bai dago;
Gizonak maiz kalteak here kolkorako
Jainkoan naiarekin pozik eztalako".

Orra, seme bat izan dau Noemi'k. Zelako poz betea! Baiña urte bi joan dira, eta mutikuak itz bat be ez dau esan; zorionaren argia illundu. Intzirika Noemi, ezta guzur negarra. Zer egin? Igarle bat, Kristo dabil Palestina'n eta ara joanik, "Erruki zadiz -diñotsa- Jesus, nire amodioa!" Ara doa ama gaztea amar eguneko bidean. Egunak eguzkitsu, gabak izar-zelai, bidea neketsu; baiña urrundik Jerusalem ikusten dau. Auxe da -a¹⁰ amak-:

"Kristo anai dogu izanik Jainko.
Amak errazoia dau, anai begikoa.
Gaur osteguna da ta biar barikua,
Nai neuke arki balei bere "Medikua".

Bariku goizean goiz Noemi semearekin laster jagi da; Jerusalem'go arriak oin-azpian ditu. Kaleetan jentea artega, ango iskanbilla! Zer jazo ete da? Oivak: "Gora Barrabas eta Ori il daiela!" Eta errurik bako Kristo Kalbariora daroe. Eriotzara epaitua izan da. Baiña Noemi, itxaropenez betea, bideratu jako, eta begirada gozoz ta ama-samurtasunez umetxo mutua erakutsiz Kristori diñotsa: "Ona neure semea" Eta Kristok gozoz begiratu dautsa.

"Kristok igarri dau andrearen naia;
Eskua luzaturik beragana doia;
Orduan soldadoak asarretu baia
Ugalezko zigorraz jo-erazo beia"

Lurrera jausi da Kristo. Begiak lurrean ta Kristo'gan burua, nun ete dabil Noemi'ren gogo? Gauza dizditsu bat ikusi dau lurrean, "gorri-gorria bera pitxi antzekoa". Ezta mundukoa, zerukoa baiño. Ona emen sendakaia, Kristok ixuri dauan "Odol-tantua".

"Odol-tantua bean ikusi dauaneko,
Noemi'ren biotza irakiten dago;
Kiñuka semeari adierazo dautso
Tantoaren aurrean belaunibikatze
Ondoren eskutxoak lurrean jartzeko
Ta mingaintxoarekin odola batzeko".

Eta semeak odol-tantua munkatu ebaneko berbaz asi zan aingeruen antzean. Noemi bai poztasunez betea!

Bertso gurizko ipuin atsegiña bene-benetan! Eta onakoxeak dozuz Abeletxe'ren beste danak be, izadiko liburutik eta Bibliatik oiñarri lez artuak asko, eta beste batzuk berberak asmatuak. Ez eban asko idatzi, baiña aren lumak zutikatua balio ederrekoa danik ezin guk ukatu.

Gerra aurreko euskal idazleak eta ostetik laster Euskaltzaleak bazkuna jaso eben idazle-talde bipillak

ba-ekian nundik nora ebiltzan; euren idazlanetatik agiri danez, euskera jatorraren jaube ziran; euskera gozo, jaso, bizi ederrez ziarduen; itz batez esateko, euskaldun euskaldunez.

Arein lorratzai jarraituz, izan bedi gurea be, itzez eta joskeraz geure-geurea, soiñekoz dizditsu.

AITA ONAINDIA

ABELETXE

Ziarsolo'tar Manu aundia,
Euskalerriko lorea,
gizontasunez, ondo, jantzia
euzko jatorri berea;
buruz argia egin zinduzan
egizko Jainko semea,
biotzez barriz, beti, zenduan
pozezko irriparrea.

Doai ederrak artu zenduzen,
izatez, zure barnean;
Euskalerrria, oso osorik,
zeunkan zure biotzean;
mendi eder ta zelai garbiak
itz egiten eutzunean,
zure bizia orbiztuten zan
euzko gizandi artean.

Zure gogoa esnatu jatzun
ikusirik aberria,
erri eder bat doai ederrez
ta izkuntza berezia;
nork ez dau maite olako enda
almendun zoragarria,
gogo bikaiñez joritu zendun
euskaldunen elertia.

PAULIN

Deia Egunkariak 1992'ko Bagillaren 16'an

Atzo asi zan, Eskolapioen ikastetxean, Euskerazaleak eratutako Euskal Astea

BILBAO. Atzo arratsaldean asi zan Eskolapioen ikastetxean Euskerazaleak Alkartea'k eratu dauan euskal-astea.

Zubiri'tar Iñaki Alkartearen Lendakariak egin eban Astearen aurkezpena eta orrelan 25'n urtearen ospakizunari asierea emon eutson.

Jarraian berbaldia asi zan. Asiera baten berbaldi au Etxenagusia'tar Karmelo Begoña'ko parrokoak egiteko izan zan, baiña bideko iztripu batek ekarri eutson oneri ezintasuna eta beronen ordeztu Aita Santi Onaindia'k egin eban berbaldia.

Gaia "Ziarsolo'tar Manu, Abeletxe" izan zan.

"Abeletxe" idazle jatorrak beti izan eban artu-emona Euskerazaleak Alkartea'k eta bere azkenengo egunetan batez artu-emon estuagoa.

"Abeletxe"ren idaz-lanen artean berak aldizkarietan idatzia gogoratu eban Aita Santik, batez be Gazi-gazak here liburua.

Liburu onetan barregaiak asko eta benetan barregariak agertzen dira. Ba-eukan here gatza orretarako eta antzerkietarako gure "Abeletxe" entzutetsuak.

Bide batez Aita Santi'k beste arazo asko aztertu ebazan "Abeletxe"ren inguruan.

Berbaldiaren ostean Paulin bertsolari-olerkariak abestu ebazan aste oneri buruz here bertsoak eta jarraian alkar-izketa labur bat egiñaz amaitu eban ekiñaldia.

Gaurko berbaldia Berrojalbiz'tar Julita'k egingo dau. Bere gaia, "Euskerea Bilbao'n" izango da.



Su Onaindia

JULITA BERROJALBIZ'EK

(ASTEARTEA)

Gaurko gaia "Euskerea Bilbao'n" da. Gaiaren emoi-ilea, Julita Berrojalbiz gure artean oso ezaguna da, euskeraren aide egindako lan ugari ta baliotsuagaitik.

Bera izan zan, zapalkuntzaren urte luze ta illun areitan, eskukada irakasle-talde batatz, euskerea eskubete erein ebana gure Bilbao lakoa zan uri erdaldunean. Ereintza au ikastolen bidez gertatu zan, eta artzailleak umeak izan ziran, eta izan be, ezin ereintza obarik, umeen artean egiten dana baiño, eurok dira-ta gure etorkirako itxaropena. Zalantzarik bage esan dagikegu, Bilbao gaur aspaldiko erdal-itxura galtzen asi ba'da, Julita lako gizakiak buru-belarri euskerearen aide aalegindu ziralako dala.

Asko zor dautsegu Julita ta bere laguntzailleai, aspaldi luze ta zail aretan, ikastolen oiñarria jarri ebela-ko, guztitariko ostopo ta jazarkundeai aurre emonez. Badira goi-dei batatz orniduta dagozan gizakiak, eta oneitariko bat Julita dogu, euskerarekiko maitasunaren maitasunez, gure arbasoen berbeteari eutsiz, eta guztitariko oztopoak garaituz.

Bera izan da, urteetan zear euskal krisailluari orio emon eutsoenetariko bat, geure uri onetan aberri-izkuntzaren oiartzunak ugaritu zeitezana.

Asieran esan dot, Bilbao uri erdalduna zala, baiña gaur esan daiteke len besteko erdalduna ez dala, euskal azia ereintzen saiatu ziranai esker.

Entzun egiozue ba Julita'ri bere esatekoa oso jakin-garria izango dalakoan.

ZUBIRI'TAR IÑAKI'K

EUSKERA BILBAO'N

Ez dakit nik askok dakien zelako eragozpenak eta zelako laguntzak izan ziran Bilbao'n Ikastolak sortze-ko guraria ta ekintzak agertu ziranean, baiña Bilbao'n euskerea zelán dagoan aztertu nai dogunean, arazo on bururatu jaku lenengo.

Guztiok egin dogun lan bat izan da on eta guztion izenak ezin agertu doguzan ezkerero, beti jazoten dana, batzuk gogoratu bearko doguz.

Lenengo San Nikolas parrokian izan zan katekesian asi gintzazan. Katekesi au oso ospetsua izan zan mundu zabalean eta antxe izan genduan lenengoz zerbait euskeraz irakasteko eta euskerea bera irakasteko

aukerea, antxe asi giñan umeai irakurten eta idazten irakasten, euskeraz esan nai dot, baiña andik urten-bearra izan zan.

Gero Frantziskotarrak eskiñi eben euren etxea Iralabarri'n eta antxe asi zan barriro ikastolea baiña begiratzailleak egun baten Euskalerriko Lutelestia edo Jeografia irakasteko ikas-liburu bat ikusi eban eta salatu egin ginduzan liburu orretan iparraldean Frantzia eta egoaldean España agertzen ziralako eta orduan andik be urten egin bear izan zan. Ez geunkan ba urtenbide onik, baiña gure gogoa bizia zan ezkerero, etxeetan banatuta ikastolea ipiñi genduan. Aldi orretan len ain arerio izan genduan begiratzaillea pizka bat bigundu egin zan, bere burua baztertuta ikusten ebalako, baiña lege barn bat sortu zan etxeetan lenengo maillako ikasketak eurak be egitea galerazten ebana eta ezin gendun lortu gure umeen ikas-neurri edo noten liburuak legez-tatzerik.

Zer egin? Ez zan ikusten beste biderik legearen arauak beteten ebazan ikastola bat sortzea baifio, eta orixe izan zan Azkue Ikastolea.

Bazkideak asko ugaritu ziran, laguntzailleak ugari izan ziran eta, zori onez Ikastola eder bat sortu al izan da, Bilbao'tik kanpora dagoan Lauro'n eta an jarraitzen da gaur be euskerearen aide lan egiten.

Ezin itzi geinkez emen aitatu batik Xabier Pena eta Iñaki Goikoetxea, euren ikas-liburuakaz eta lanakaz asko lagundu euskuelako. Eta beste izen batzuk be esan-bearrekoak dira baiña parkatu beiste. Eurentzat nire eta Bilbao'ko guraso asko eta askoren esker ona.

(Berbalditik artutako jakingarri batzukaz egin da laburpen au)

BILBAO'N EUSKERA

Bizkai orleiko uri-burua
Bilbao zoragarria,
itxaso eta burdin miñekin
bizitza sendoz jantzia;
ondasun orrek direla-eta
galdu zure izkuntzia,
erruki barik kendu eutzuen
erriaren arimia.

Bakarkadian aurkituten zan
euskaldunaren gogoa,
burdin giroak menperaturik
erriaren arnasea;
baiña gizon bat jaio zan Bilbon
euskeraren esnalea,
gaztedi on bat sortu ebana
izkuntzaren maitalea.

Aren argiak eta odolak
ekarri eben bizia,
Sabin izan zan maisu aundia
eta berbiztuerea;
ikasle onak izan zituan,
egiz, ondo, merezia,
euren artean Agirre jauna
izlari zoragarria.

PAULIN

Deia Egunkariak 1992'ko Bagillaren 17'an

Berrojalbiz'tar Julita Andreak berba egin eban atzo Euskal Astean

BILBAO. Bigarren eguneko berbaldia Berrojalbiz'tar Julita'k egin eban, atzo.

Jakiña da, Euskerazaleak Alkartea 'ren elburu bat euskerea erabiltea lortzea izan zala.

Bilbao'n euskaldunak orduan, orain ogei ta bost bat urte, gaur baiño gitxiago ziran eta euskaldunak ziranak be ez ziran euskeraz berba egiteko ausartzen.

Bearrezkoa zan ba, Alkarte onen ekintza, euskerea okulluetatik atarateko eta plazan eta kalean gure izkuntza erabiltzen ausartzeko.

Baiña orrez gaiñera Alkarte onek ainbeste urtetan eratu dau euskerea ikasteko urtea. Bear ba'da auxe izango zan lenengo euskaltegia.

Eta zer lortu da? Ez Bilbao'tar guztiak euskeraz egi-tea, on amets utsa da, baiña bai euskereari zor jakon lekua eskintzea. Alkarte au izan zan eskoletan euskerea sartu al izateko eskaria Madrid'era egin ebana. Eskatu eta lortu be bai. Orduantxe asi ziran elebitasunezko ikastetxeak eta ordutik ona asko aurreratu da arlo one-tan.

Bahia noraiño eldu gara? Zenbatek egiten dau gaur berba euskeraz Bilbao'n? Ez da erreza jakingarri zeatzak emotea, baiña orretarako alegiña egin eban Berrojalbiz Andreak eta pozik entzun geuntson.

Gaur Olazar'tar Martin'ek egingo dau berbaldia eta bere gaia Euskerazaleak Alkartea'k argitaratu dauzan liburuak izango da, eskolapioetan, arratsaldeko 8'retan.



Berrojalbiz Andrea

OLAZAR'TAR MARTIN'EK

(EGUASTENEAN)

Gaurko itzaldiaren gaia gure alkartearen argitalpenak dira, eta oneri buruz Olazar'tar Martin izango da izlaria.

Martin, "Euskerazaleak"en lendakari-ordea da, eta txarto gomutaten ez ba'naz, 1977 urtean batzordekoa izendatu izan zanean, eta aldizkari bat argitaratu bear gendukeala erabagi genduanean, bera aukeratu genduan abo batez gure illeroko "ZER"en zuzendari.

Zergaitik aukeratu genduan bera zuzendaritzat...? Euskerea ondoen dakienetarikoa dalako, eta onezaz gaiñera langille neke-eziña. Irakasle bateri bein entzun neutsan, langille ona danari gero ta lan geiago datorkiola. Eta zergaitik...? Ona dalako, besterik ez.

Ordutik, bere gain artu eban Martifi'ek, idazleen lanak alkartzea, banatzea, irarkolako azterketak eta zuzenketak egitea, lankideak akuillatu, euren lanak garaiz etorri daitezzen, argazkiak aukeratzea ta abar. Eta au gitxi bai'litzan atal garrantzitsuena berak atonduz gaiñera, aldizkariaren utsunak, idazle urri dagoanean batez be, berak bete egin bear izaten dauz. Izan be, askotan dirauntsat nire buruari, "ZER" argitaratzeko zelan ibilliko gintzakez, bera ez ba' genduke. Zorionez, or dago bera, eta or agertzen da gure aldizkaria uts egin bank, illeko lenengo egunetan.

Olazar'tar Martin euskereari dagokiozanetan benetako maisua dogu, eta au nik neuk ondo dakidan gauza da. Eta augaitik, eta langille neke-eziña dalako, orain gitxi dala, "Euskerazaintza"koek gure lendakaritzat aukeratu genduan, gero ta argiagi ikusten dogula, gure aukerapena ona izan dala.

Onetaz naikoa dala uste dot, zelakoa dan Olazar'tar Martin ezagugu dagizuen. Asi bedi, beraz bere itzaldia.

ZUBIRI'TAR IÑAKI'K

EUSKERAZALEAK ALKARTEAREN ARGITALPENAK (Berbaldia, Bilbao'n 1992-6-17)

Jaun - Andreok:

Euskerazaleak alkartearen Zidarrezko Eztegua dala-ta eratu dan Aste onetan zeregin aundi bat leporatu dauste: Alkartek egin dauan elizti ta elerti-lana aztertzekoa.

Zeregin aundia esan dot, ez asko idatzi dalako baiña bai egin dan lana ondo aztertu-bearrekoa dalako baiño.

Banan-banan aztertuko doguz ba esku-artean daukaguzan liburu guztiak eta zerbait esango dogu kasetai eta ZER aldizkariari buruz.

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k ez dau iñoz galdu bere elburura doan bidea: Euskerea erabilten laguntzea, Bizkai guztiari, baiña batez be Bilbao uriari.

Baiña zer egin euskerea erabiltea lortzeko? Irakurgai errezak argitaratu, iztegi labur eta errez bat eskuratu, euskera ez dakienari laguntzeko elizti edo gramatika erreza eta laburra eskiñi, euskera errezean idatziak diran ipuiñak apain-apain idatzi, giza-soiñean diran osagaien izenak liburu baten irudi ta guzti ipiñi, egunaren barman eta told bakoitxean erabilili bear diran alkar-izkerak erderaz eta euskeraz liburu baten batu eta, zelan edo alan danaren laburpena dan elizti edo gramatika oso bat aurkeztu ikasi nai daben guztiai.

Oreixe dana egin dau EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k, entzuleok, iparra non dagoan agertzen dauan orratzari beti jarraituz, euskerea erabilteko erretzasunak eskitzen beti.

EUSKAL IRAKASBIDE LABURRA (L° MAILLA)

Orixe da izen errezagooz ezagutzen dogun Xabier Peña'ren gramatika.

Bearrezko gauzea litzake emen, gure Xabier Peña'k Bilbao'n euskerea zabaltzeko egin eban lana azaltzea, baiña aste onen barruan besteren batek on egingo daualakoan, eta gure elburua liburuak aztertzea dala kontuan arturik, itzi dagigun aide batera zeregin bearrezko ori. Eskertzekoa benetan, bera giputza izanik eta giputzak bizkaieraz berba egiteko ta idazteko gaiztasun aundiak izaten dabezela jakiñik, gizon aintzagarri onek Bilbao'n egin eban lana.

Sarritan erabilili dogu gure iraskastaldietan Xabier Peña'ren gramatika, eta auxe bai esan al dogu: Ikasgaiak urregorik urregora ondo norberagandu ezkeri, ikasbide onegaz euskerea ikastea ez dala gaitxa. Beste gramatika batzutan ikasgaiak ikasgaira etena ikusten dogu, edo beste era batera esateko, arriñegi egiten dan aurrerapena, baiña Xabier Peña'k ezibide egokia darabil arlo onetan.

Lenengo beti iztegia ikasten da, urrengo aditza eta urrengo izen-lagunak eta aditzlagunak. Iru arlo onetan oiñarriak ondo jarri ezkeri, urrengoa esaldiak sortzea da, gai orreikaz etxea egiten astea esango genduke.

Gero irakurri. Pozgarria izaten da lenengo gauzatxuak ikasi ondoren, lenengoz zerbait irakurri eta ulertzea.

Eta gero idaztea dator, idazkiz ariketak egitea: Entzuna idatzi, erderatik euskerara itzuli, batenetik askorenera aldatu, aditz-jokoak egin eta alkar-izketeta.

Oinkada orreik emenez, urregorik urregora, ikaslea euskera beraganatzen doa.

Azkenengo ikaskizunetan gauza barri batzuk agertzen dira: Ots-itzak, ume-itzak, bizibideak, kristiñauen otoitzak, abestiak, olerkiak, esaera zarrak. Egokiak dira oneik ikasketak etxe-ikuspegia artu dagian.



Gramatika au, jakiña, oso klasikua da, baiña EUSKERAZALEAK alegin berezia egin dau gramatikeagaz batera beste laguntza batzuk eskintzen, eta ezin ukatu oso egokiak dirala errezago ikasteko argitaratu diran kasetak. Laguntza aundi bat dira oneik batez be bcste zeregin barik euskera ikastera sartu ezin diranentzat.

"INICIACION AL ESTUDIO DEL EUSKERA"

Ona emen beste ikasbide bat, Xabier Peña'k eta Jose Antonio Montiano'k idatzia.

Eurak liburuaren asieran diñoenez, ez da euskerea ikasteko bide oso eta amaitua, aldean erabilteko ingurrasti baten antza dauka geiago eta egokia da irradi-bidez irakaskintza egiteko naiz talde txikietan alkartuta ikasteko naiz norberak bakarrik asti-aldietan ikasten ekiteko. Egin dira irratizko irakastaldiak.

Argi dago idazleen ardura berezia: Ikasi nai dauanari erreztasun guztiak emoteko gogoa.


Ikasgai bakoitxean iztegia, gramatika-arauak eta ariketak dagoz. Irurogei ta bost ikasgai dira guztiz.

Ikasgaiak amaitu ondoren, ikaslearentzat lagungarri batzuk datoz: Alkar-izketak (Oneik geroago, beste liburu bat aztertzean aitatuko doguz). Eta bederatzi alkar-izketa amaitu ondoren, ipuiñak dakaz, ikasitako euskerea ulertzearen poza emon dagian, sei ipuin guztiz, iztegitxu ta guzti; eta gero alkar-izketa ta ipuin oneik erderatu egiten dira.

Urrengo, iztegi naikoa luze bat, naizta eurak argi agertu emen erabilten dan iztegia oso laburra dala, euskerearen iztegi osoaren parean jarri ezkerro.

Èta azkenez, aditzaren laburpen bat.

Liburu txiki onek, 142 orrialde baiño ez dira, ez dauka zer galdurik.



NORA ZOAZ

Ona emen euskerea ikasteko beste bide bat, ikusiz eta pozik euskerea ikasteko asmoagaz idatzitako liburu.

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k, sariketa bat eratu eban euskerea ikasteko bide barri bat billatzeko eta saria orduan Bizkai'ko Aurrezki Kutxa zanak eskiñi eban, 50.000 pezetako saria eta irabazle Goikoetxea'tar Iñaki aita josulaguna izan zan, apaingarriak Larrinaga'tar Luis jaunarenak dirala.

Orix da NORA ZOAZ, 1969'an argitaratua.

Orain-arte aztertu doguzan liburuakaz bardindu nai izan ezkerro, liburu onetan aurrerapide aundi bat aurkitzen dogu: Izkuntza irakasteko bide lez irudiak artzea, eta bide au aspal-diko urtetan gaurkotasunezkatat dagoan bidea da. Or ikus-ten dogu EUSKERAZALEAK ALKARTEA'K eguneratuta jokatzeke izan dauan gogoa.

Irakasbidea bera kontuan artu ezkerro, aurrepidea asti-tsuagoa dala dirudi liburu onetan: irudiak ondo ikusi eta berbak irudiakaz ondo alkartu, ori da bidea. Gero ortik alkar-izketarako oinkadak emoten dira.

EUSKAL ASTEA

Liburutxua oso apaiña ta dotorea da eta irudiak politak eta ikusgarriak. Noizean bein abestiren bat be sartzen da, esaterako 68 orrialdean Akerra ikusi dogu, 85n'ean Bogaboga; 107n.'ean Errotatxua, 116n.'ean Lo, lo, lo; 118n.'ean Trakatan, trakatan...

Amaitzeko aditz-joko batzuk eta iztegi bat.

Or daukaguz ba, iru gramatika antzeko euskerea ikasteko, irurak onak eta bakoitxa here elburuagaz, txalogarriak: Euskaldunen alegiñak dira eta euskerea zabaltzeko alegiñak, batez be Bilbao'n diran erdaldunai euskera ikasteko bideak erreztuteko aukerak. Txalogarria da benetan Alkarteak arlo onetan egin dauan lana.

Baiña oraindiño ba-dagoz beste liburu batzuk be, liburuak naiz ingurrastiak, euskera ikasi nai dabena laguntzeko gogoaz idatziak.

Euskera ikasi nai dauanak lenengo bear dauan gauzea gramatika da baiña urrengo, eta ainbat lasterren iztegia bear izaten dau, here ikaskizunak osotzeko eta ariketak egiteko.

Egia da, gramatika bakoitxak here azkenean iztegitxua eukiten dau, baiña ikastadiak aurrera joanez, iztegi zabalago bat eskatzen dau ikasleak eta lan au be egin dau EUSKERA-ZALEAK ALKARTEA'k.

"IKAS" IZTEGIA

Alkarteak argitaratu dauzan liburuaren artean auxe izango da geien saldu dan liburua.

Ez uste izan, gero, iztegi aundi bat danik, ez dauka Azkue'ren edo Akesolo'ren iztegiak dauken lako elbururik, iztegi au ez da besterik euskera ikasten dabillanari laguntzea bail-10 eta orretarako bear-berrekoak diran itzak artzen dauz.


Aldean eroateko lako liburu txikia da eta lenengo zatian euskeratik erderara itzultzen dauz itzak, bigarrenean barriz erderatik euskerara. 143 orrialde lenengo zatiak eta beste eun orrialde-inguru bigarrenak.

Guztiz 10.000 itz dakazela diño asieran eta itz orreik Bizkaieratik eta Gipuzkoeratik artuak dirala.

Iztegiaren egilleak Jose Antonio Montiano eta Jose Ramon Urkijo dira, Karmelo Etxenagusia ta Xabier Peña aolkulari dirala.

Ara zer diñoen idazleak sarreran: Iztegi txiki au ez da jakitunentzat egiña; euskerea ikasten asten diranai laguntzeko da.

Millak aleak saldu dira eta millak ikasleak artu dabe laguntza iztegi labur eta egoki onetatik.





ALKARRIZKETA

Liburu ona eta lagungarri ederra au be euskera ikasten asi diranentzat.

Izkuntzak ikasteko aspaldion argitaratzen diran ikasbideak, bizitzako egoera ezbarriñak artzen dabez eta egoera orreitan berba egiteko erreztasuna lortzen alegindu, irudien bidez. Orixe da EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren liburu onek artu dauan bidea. Gramatika ondo menperatu dauanak laguntza aundia aurkituko dau liburu onetan.

Ona emen zeintzuk egoera agertzen diran, bakoitza alkarrizketa bategaz: Itzaurreko alkar izketa, agurtzekoa, sendia ta notiña, eguneroko zeregiñak, eguna asten danerako, arraindegian, oillasko ta arrauztegian, barazki ta igalitegian, bazkaria gertatzen, bazkarian, eguna amaitzen danean, aldi-zatiketa; Ordukaritegian, eguna ta astea, illeak eta urtearoak; eguraldia, Udabarriko igande baten, udako egun bero baten, udazkenengo igande txar baten, neguko igande otz baten; diru-etxean, ezkondu egiten ei zara, akeitetxe baten, ardandegian, bizitoki bat ikustean, bizartegian, ikustaldi bat, Jostundegian, futbol jokaldi bat, zinera goaz, mus-jokoa, burdin-bidean ibilte bat, ostatuan, bazkaria jatetxe baten, eztegu bat, Ameriketatik idazki bat, Bilbao uria ikusten, Gernika'ko zugatza, oporraldiak eta udaldia (kaira, ondartzara, mendira, baserria, eizan egitera), izparringia irakurten, osagillearen etxean, azkeneko alkarrizketa. Guztiz ogei ta amabi alkarrizketa dira, guztiak euskera ta erdera datoz eta batzuk zati bat baiño geiago dauke.

Liburu egoki au Imanol Rotaetxe'k beretzat egindako ari-ketatik Abeletxe'k eta Xabier Pefia'k atarea da.

Egia aundia da sarreran eurak difioena: Alkarrizketa edozein izkuntza ikasteko bide eginkorra da. Euskera, gaiñera, dan lakoa dalako, ondoen alkarrizketearen bidez ikasten da. Orregaitik argitaratzen dabe liburu au, gramatikearen osagarri lez.

Azalean margo askodun irudia dauka eta barruan, alkarrizketa bakoitxean iruditxu batzuk apaingarri lez eta ulermenera sartzen laguntzeko.


Darabilen euskera, errikoa, garbia eta erreza da.

GIZA-SOIÑA

Goikoetxea'tar Iñaki Aitak idatzitako beste liburu bat daukagu eskuetan, berak diñoanez, "euskerea irakatsi eustan neure amari" eskiñia.

Liburua eskuetan artzen dogunerako, azalean daroan pelotariaren irudi eder eta margotsuak dei egiten dausku irakurtera.

Itzaurrean aita Iñaki'k berak ikastolen ugaritasuna gogoratzen dau eta liburu onek utsune bat beteteko guraria dakarrela diñosku. Liburua Bizkaieraz eta gizpukoeraz argitaratzen dala diño, baiña beste euskalkietan be argitaratu nai dauala. Batu eder baten be argitaratuko leukela diño baiña batu eder on ez daukagun bitartean... (?)



EUSKAL ASTEA

Liburuaren elburua giza-soiñaren giroan euskal kutsua emotea da eta orretarako ikas-gai bakoitzean gaiaren azalpena, ariketak eta esaera zarrak, itz gurutzatuak, abestiak, irudiak eta olako lagungarriak dakaz.

Irudiak Goenaga'tar Eusebio'renak dirala eta argitaratzeko laguntzagaitik Berrojalbiz'tar Yulene'ri eta Xabier Peña'ri eskerrak emoten dautsezala diño.

Jarraian aurkibide oso egoki bat daukagu liburuan: Ikasgaiak (gizona, burua, emborra, soin-adarrak, azurrak, giarrak, biriak, biotza, guntzurrinak, ikusmena, entzumena, gozamina, usaimena ta ikumena). Beste sail baten irakurgaiak: ipuin-antzekoak dira, baifia irakatsi aundi ta onak daukazela. Eta beste saila baten amasei abesti.

Len aztertu dogun NORA ZOAZ liburuaren antzera, au be irudi ederrez jantzita dago eta ezin ukatu liburu biak alkarren antza daukela.

Esan bearrik be ez dago, euskerea oso egokia, erreza ta errikoa dala. Guztiok dakigu zelakoa dan Goikoetxea'tar Iñaki'ren euskerea.

Olako liburu ederrak eta egokiak ikustean auxe jatort burura: Zergaitik ez ete diran saltzen. Zabalkundea egiten ez dalako ete da? Ez ete da gero, gaur daukagun batuaren giro onetan euren erakoa ez dana alboratu egiten dalako? Azkenean aztertuko dogu arazo au.

AURTIXOA II

Aurtixoa II daukagu eskuartean; lenengoa, agortu zalako, ez daukagu aztertzeo aukerarik.

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k argitaratua dogu liburu au be eta ez euskerea ikasi nai daben elduentzat, ize-nak berak diñoan lez umeentzat baiño.


Liburu 1968'an argitaratua da, Bizkai'ko Aurrezki-Kutxa laguntzaille data, eta egilleak Muñoa ta Orbea'tar Itziar eta Foruria ta Arteta'tar Jose Erramon.

Liburu onek EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren inguruan beti izan dan eguneratzeko ardurea agertzen dau-sku barriro. Ara zer diñon itz-aurrean: "Paidoloji'ko aurrera-penak umeen ulertze andiangoetara eroan gaitue. Onek lan sakonagoak egin-arazi ditu, umeen irakaspena egokiagoa izan daitean".

Orretarako liburuak artzen dauan bidea "onomatopeyikoa" ta "ideo-visual" deritxona da eta bide orretan, lenengo, izkien otsak umeak artu dagizan alegintzen da gero marrazkien bidez esaldiak egiten dabez umeak eta bide orretatik jarraitzen da.

Ikasgaiak laburrak dira, umeak errez artzeko lakoak, eta orrialde bakoitzean dagokion irudia agertzen dala.

Ona ete da irakasteko era au? Ondoren onak lortzen ete dira? Baietz esan bear dala dirudi, baiña on umeakaz bide au artu eta bete dabenak esan beariko dabe, nik neuk ez daukat oar-ikasi edo experientzirik orretan. Gero, azkenengo alkar-izketan bear ba'da irakasleren batek orretzaz itz egin al izan-gou dau.



I, II eta III INGURRAZTIAK

Euskerea irakasteko alegiñak egiten jarraitzen dabe gure argitalpenak. Ikusten dozuenez, EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k ez dau iñoz galdu here iparra, ondo daki norantzajo bear dauan.

Ingurrazti oneik len aztertu doguzan gramatika edo antze-koen bidean dagoz eta ez dira besterik liburu arein elburua obeto beteteko erreztasuna baiño.

Itzulpenak, gurutz-itzak, euskal-iztegiak, aditz-jokoak, gramatika-oarrak, alkar-izketa laburrak, galderak, abestiak, idaz-lan laburrak, zenbakiztia (Batuketa, kenduketa) eta ola-koak ikusten doguz.


Ingurrasti oneik, itxuraz lan apala izan arren, oso egokiak dira izkuntza pozik, nekatu bank, ikasteko eta irakaskintzan egin dan lan aundi baten agerpena dira, bear ba'da zor jakon besteko esker ona artzen ez dauan lana.

Goazen orain gure argitalpenen azkenengo arlor: Irakurgaien arlor.

Barriro esan bear dogu, ari orretara sartu baiño ten, EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k here iparra ez dauala gal-tzen: Irakurgaiak euskerea ikasten eta erabilten laguntzeko dira, naizta atsegingarriak izan euskeraz ondo dakienetzat here.

IRAKURGAI ERREZAK

TEXTOS CON VOCABULARIO REDUCIDO PARA PRINCIPIANTES



Nun zer:

DAVID COPPERFIELD**IRAKURGAI ERREZ POLITAK**
(amairu irakurgai, bost liburutan)

Ara zer diñoen liburuak, batek izan ezik, asiera-asieran: "Idazlanok euskera errezean eta iztegi laburrez idatzi dira eta asmo orregaz argitaratzen doguz". Elburua, iparra, argi agertzen da.

Eta zein ete da liburu onein muiña eta idaz-tankera?

Iru antzerki labor daukaguz liburutxu baten: Zenbat urte?, Pitxi gorria eta Artzain-etxean. Beste liburutxu baten beste iru antzerki labor: Eskutitz galdua, Lapurrak datoz eta Zori oneko lapurra. Eta irugarren liburutxuan beste lau antzerki labor: Sagar erdia, Errauskiñe, Salomon errege ona eta Dringilin dron.

Iru liburutxu oneik azkenean iztegi labor bat dakarre. Orrek be irakaskintzarako alegin egokia agertzen dau.

Irakurgai errezen artean, beste liburu bi daukaguz, lodiagoak. Lenengoak dakazena antzerki luze samar bi dira: Zenbat urte eta Zorioneko lapurra eta gero beste zortzi antzerki labor. Oneik len argitaratutako antzerkiak dira geienak.

Eta bigarren liburua Charles Dickens'en David Copperfield ipuiña da, Zubiri'tar Iñaki, EUSKERAZALEAK ALKARTEA-ren gaurko lendakariak inglesetik artua eta laburtua.

Besteen antzera liburu apaña, iruditsua ta polita au be, irakurgaria edozein aldi eta girotan.

EUSKALERRIKO IPUIÑAK (I eta II)

Oneik dira EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k argitaratu dauzan lenengo ekitaldiko azkenengo liburu biak. Beobide'tar Jose Luis aita karmeldarrak jarri dauz ipuiñak Bizkai'ko euskeraz. Ipuñak idazle ospetsuengandik artuak dira eta argitalpena, irudiz apaindua ta egokia, bigarren atala edo liburua apañagoa ta margotsuagoa.

Ipuin liburu bi oneik ez dira umeentzat egiñak, baiña umeak irakurteko be egokiak dira. Irakurleak euskera dakienak eta obeto ikasi nai dabenak izan daitezke.

Edozein tokitan egokiro saltzeko lako ipuin-liburuak dira.

Lenengo liburuan margolaria Nicolas da eta bigarrenekoaren izena ez da agertzen baiña ba-dakit marrazki guztiz eder eta gaurkotu orrek lortzeko sariketea egin zala gure Alkartean.

YANNOZ ELEBARRIA

Gogoratu dagiguzan orain azkenengo urte oneitan argitaratu diran liburuak.

Onein artean lenengoa, Zubiri'tar Iñaki gure Lendakariaren elebarria da. Elebarri onetan euskaldunen eta akitaniatarren arteko artu-emonak aztertzen dira eta elebarri oso irakurgaria da, aspertu barik irakurten dana.

URRATS OLERKI-LIBURUA

Geure artean daukagu bertsolari Paulin gure Olerkaria ugaria. Onek idatzia da bigarren liburu au. Olerkiak dira, bizitzako egoera ezberdiñak agertzen dabezan olerkiak.

Batzutan Anakreonte'ren bidea artzen dau, bazkari onaren ondoren, beste batzutan Pindaro'ren gaijai jarraituz gure kirolari ospetsuak goratzen dauz, urrengoan ezkontza bat ospatuko dalako antxiña epitalamioen antzera ekintean dau, gaur eleizan eta biar kalean, Paulin'ek bertsoetan agertzen dauz bizitzaren pozak eta kezak.

ZALDUPEKO TXIKIA eta LUGO'KO IPUIN
ERRIKOIAK

Azkenez gogoratzen doguzan liburu bi oneik ez dira EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k argitaratuak, baiña bai argitaratzeko laguntza artu dabenak.

AMAITZEKO GOMUTAPENAK

Amazortzi liburu dira gure Alkartean argitaratu dauzanak. Alegindu gara bakoitza zelakoa eta zertarako dan agertzen, baiña ezin amaitu gogaketa bat egin barik.

Esan dogu, batez be ZER aldizkariko idaz-lanetan eta beste aldizkari batzutan Zidarrezko Eztegua dala-ta argitaratu diran idazlanetan, zelako izan zan EUSKERAZALEAK ALKARTEA-ren amets utsa edo utopia. Gure euskerazaleak egin eben ametsa, Bilbao euskalduntzekoa izan zan. Ogeita bost urte igaro dira eta BILBAO EZ DA EUSKALDUNDU.

Utopia'ra ez gara iñoz eltzen, orrexegaitik da utopia edo

EUSKAL ASTEA

amets utsa, baiña bai bide batzuk artu dauz, bai aletin aundi bat egin dau eta asko be asko lortu be bai. Baiezen onen lekuko dira gaur euskera ondo egiten daben ainbeste ta ainbeste Bilbao'tar.

Baiña ez dogu amaitu bear lortu dan ondorengo zergaitik aundiagoa izan ez dan aztertu bank.

Ikusi ta aztertu doguz gure liburuak, gaurkotzerako eta euskeraz egokiro irakasteko aletin aundi bat egin daben idazleen liburuak, ikastoletan eta Euskaltegietan gidari izateko egokiak ziran liburuak.

Baiña zergaitik dagoz liburu orreik, geienak beintzat, ezelako frututik emon barik? Zergaitik ez da jarraitu artutako bide on sendo ta gogotsu?

Askotariko erantzunak emon leikioz itaun oneri eta nik be neurea emongo dausat.

Gure Alkarteak erriko euskerea landu dau beti, aurreko-enganetik artu dogun idazkerea erabilli dau edonon, baiña 1968n. urtean aize zakar batek jo eban euskerea, batua deritxoen euskeraren aize zakarrak, erriko euskerea zapaltzen dauan giro zakarrak. Eta giro ori, zori txarrez, batez be Bizkai'ko gure euskalkiaren zori txarrerako, ikastola eta erakunde guztietara sartu da eta gure jokabideari bide guztiak edo ia guztiak itxi dautsoz. Aztertu doguzan liburuetatik geienak 1968 inguruan argitaratuak dira.

Batuaren aize zakar orrek zapuztu dau gure Alkartearen bide argi ta ederra eta orain oso-osoan baztertuta gagoz, laguntzak urri, oso urri daukaguzala; idazle asko, guzurrezko bizkaitarrak, batuzaleakaz alkartu jakuz edo egokia ez dan idazkera batera makurtu dira, bear ba'da orrelan dirulaguntza ugariagoak lortzen dabezelako. Bitartean emen daukaguz gurasoak eta seme-alabak, euskaldunak izanik, alkar ulertu-eziñik, batuaren aize zakar orrek ekarri dauan ekaitzaren ondorenez, babel barn dogu batu ori.

Baiña al dogun neurrian aurrera jarraitzen dogu. Or dagoz gaurko EUSKERZALEAK ALKARTEAREN LEKUKO, ekintza barriak: Ipuin sariketa urtero, ZER aldizkaria illero, eguneroko orritxua eskintzen dauan gure egutegia eta iñoiz etenik izan ez dauan irakaskintza. Eta gaiñera EUSKERAZAINTZA euskerearen akademi barria sortzeko lankide biziak izatea. Jokabide orretan be gure Alkarte onek ez dau galdu bere iparra, ba-daki norantza doan, eta ba-dau itxaropena egunen baten gauzak bideratuko dirala eta zuzentasunak argi egingo dauala. Ez al da beranduegi izango.

OLAZAR'tar MARTIN'ek

ARGITALPENAK

Lenen lenengo aitatu nai dot
Xabier Pella gizona,
Gipuzkoarra izatez goitik
benetako euskalduna;
Probintxiñuek, zail, eritxoen
bizkaitarren itz jarduna,
guk ezin jakin zergaitik dauken
bizkaieraren utsuna.
Baiña izarrak agertzen dira

zeruetan illuntzian,
Bizkaiko seme leñargiekin
Xabier dabil lanean;
euskera-zale erri gizonak
sortu eben lan bidian,
gogo onenaz jokatu eben
euskera indartu naian.

Aldi gaiztoak izana-gaitik
beuken indar berezia,
elizti eta irakur-gaiak
sortzen albiladadia;
erreztasuna eskeintzen eben
danentzat gauz egokia,
euzkotar danei opa izanik
euskera bardingabia.

PAULIN

Deia egunkariak 1992'ko bagillaren 18;an

Olazar izan zan atzoko izlaria, Euskerazaleak'en Euskal Astean

Atzo, eguastena, Olazar'tar Martin'ek izan eban bere itzaldia Euskal-Astean.

Lenengo ta bein izlariak argi agertu eban Euskerazaleak Alkarteak 25 urte oneitan egin dauan alegiña batez be euskerea ikasteko bide egokiak eta eguneratuak argitaratzen: Amabost liburu dira elburu ori kontuan dauala alkarteak argitaratuak, eta guztiak dira oso egokiak euskerea neke aundi bank ikasteko: Xabier Peña'ren Gramatika, ingurraztiak, Aurtxoa I eta II, Alkarrizketak, Giza-Soiña, iztegia, Nora Zoaz, Inicacion al estudio del euskera, Euskalerriko ipuiñak I eta II, Irakurgai errez politak.

Liburu guzti oneik argitaratzeko egin dan lan sendoa ta sakona goratu eban Martin'ek eta gero galdera au egin eban: Zergaitik zabaldu dira gitxi liburu oneitariko geienak? Zergaitik ez da jarraitu lan ori egiten? Orren erantzuna erreza da: Bizkaiearen aurka datorren batua sartu dalako irakaskintza-arlo guztietan eta liburu oneik ez dabezelako onartzen ikastola ta ikastegietan. Baiña ezin ukatu, liburuak ikasbide lez oso egokiak dirala.

Argitalpenen munduan aspaldion Alkarteak beste bide batzuk artu dauz, elburu bardiñagaz, batez be ZER aldizkaria argitaratzea ta urtero ateraten dauan egunero irakurgai-dun egutegia. Baita elebarriak, esaterako Zubiri'tar Iñaki'ren Yanoz, eta Olerkiak, esaterako Solozabal'dar Paulin'en Urratsak. Bizkai'ko euskerearen aide egin dau Alkarte onek eta, bere iparra iñoiz galdu barik, Euskerea erabiltea billatzen dau.

Berbaldia amaitu ondoren, Solozabal'dar Paulin'ek bere bertsoak abestu ebazan eta gero alkar-izketea egiñaz amaitu zan ekiñaldia.



ZUBIKARAI'TAR AUGUSTIN'EK

(EGUENEAN)

Gaurko itzaldiaren gaia, gure alkartearen egutegia da, eta gai onen emoillea Zubikarai'tar Augustin.

Badira gizaki batzuk, eta ez asko izan be, euskerea muiñetaraiño sartuta dabenak, eta oneitariko bat argi bereiziaz diz-dir egiten dauana, Zubikarai ondarrutar adoretu ta azkarra da.

Gazterik euskeraz idazteari emoten asi zanetik ona, bere luma argi ta neke-eziñak ez dau atsedetik ezagutu. Elebarriak, olerkiak, ipuiñak, izparringi ta aldizkarietarako idazlanak, Ondarru ta onen inguruko errien kondairak etabar, parrastaka sortu izan dira bere adimen urtenetik, ainbat eta ainbat euskal irakurleentzat.

Lengo egunean, Aita Santi'ren aurkezpena egin nebanean lez, gaur be esan bear dot, uko egiten dautsadala bere liburuaren banan-banako aipamen egiteari, orretarako astirik ez dago-ta.

Gure erakundearen batzordeari egutegi bat urtero argitaratzea otu yakonean, Augustin'en laguntza baliotsua izan genduan asiera batetik, eta gogoz eskiñi eban bere burua aal eban giñoan laguntzeko, eta orrien aurrekaldean agertzen diran gertakizunak, noizkoa ta norkien izenak, berak atoduak dira. Ez uste, baiña, au garrantzi bako arloa danik, ezta urrik emon be; orretarako egun askotako lan eta aalegiñak bear dira. Izan be, bera lako ezagularia dan baten laguntza izan ez ba'gendu, egutegiko orrien aurrekaldea ez litzake orain clan beste apaiña izango.

Augaitik ba, gaur gure alkartearen egutegiari buruz berba egingo dauku Zubikarai'tar Augustin. Asi bedi, beraz, itzaldia.

ZUBIRI'TAR IÑAKI'K

EUSKAL EGUTEGIAK

Erraza da goitik eskatzea. Eta ezetz esaten ez dakigunontzat eskabide ori, sarri, ia agintze izaten da.

Gaia?

Au be eskatua: Egutegiak.

Bete eta kendu daigun bizitzako orri bat.

Ez aurrez zerbait esan barik. Edo ta obeto, orria beteak zerbait esatera beartzen nau.

Ez naz zezen zale. Baiña ba dakit korrida guztietan, oiturazko zezen kopurutik gain, bada ezpadan beti egoten dala gertuta besteren bat. "Sobreroa" deitzen dautse. Eta "sobreroari" ezin eskatu denborak aurrez aukeratu eta izentauta egon dan zezenari eskatu leikenik. Itxura bat emon ezkerro, kitto.

Egia esateko, euskal egutegiei buruz ezin nei esan sekula ezer egin ez dodanik.

1932 urte azkenetan, Amorebieta'n Jaungoiko Zale erakundearen asi nitzan lanean. Nire bizitzako lenengo urteera zan.

Saturraran'go lau urteak amaitzean makal nebillen. Gasteiz'ko Seminario zarrean bostgarren urteko ille batzuk egin ondoren etxera biurtu bear, erdi gaixo. Alaz eta urtea gaindu neban. Lenengo filosofiko urtea ikasterakoan, Seminario barriaren zabalkundera joan nitzan, baiña don Mateo Mujika gotzaiñaren karta bat artu neban esaten urte a izango zala azkena etxetik egin neikean. Osatu ezik, barrurako gertu ezik, itxi egin bearko nebala. Orrek geiago estutu nindun. Eta urte aretan, ia ondarrutar geienak itxi egin ebela ikustean, nik be etsi neban.

Ortik, oraindik makal, Zornotzara joatea. "Ekin" asterokoa agertzeko asmotan ebiltzan "Jaungoiko Zale" ille-rokoaren ordez. Eta an tokia eukiko nebala ta asieran orra nun ipinten nabean don Zirilo Arzubiaga "koxuak", abade jator, langille ta zintzoak bere etxean, egutegi bateko orriak orraztu, aldatu, bete, kontakizun, txiste eta abar aukeratu eta gai txikiekaz orriak beteten.

Orra nire lan bidea. Ez luzaro. Barriro kiriotatik malkatu nitzan. Eta benetako miñez etxeratu bear.

Ez da ori bakarrik egutegietako nire ezaupide eta oar-ikaspena.

Gure guda ostean, etxeratu eta urteetara, nire zaletasun bat beteten nebillen. Nire erriko gauzak, Ondarroa'ko jakingarriak batu, liburu, artxibu eta paper zarretatik. Efemerides lakoak. Ainbat batuta neukazala ikusita, erri-rako egutegi bat idaztea pentsatu neban.

Makiñaz atara neban, orduan ez egoan fotokopiarik gaur lez, eta lan asko egin bear. Baiña erakutsi neutsen erriarrak atsegiñez arm eusten nire egutegi ori eta eskatu ala kopiak atara ta zabaltzen neban.

Illik il, egun bakoitzean Ondarroako zerbait ipinten neban. Oitura, kantu, eguneko zerbait.

Lan geiegi emon neutsan neure buruari. Itxas goraberrak, itxas marien orduak be egunero jarri nebazan: Eta ori lan astuna zan: Urtea asi baiño len gertuteko be, batera deitu, bestera jo, azkenean Cadiz'etik lortu neban ortarako taula, eta sasoz egin al izan neban. Ala itxas mare, itargi gora bera eta abarrekaz agertu zan.

Lau urtetan zabaldu neban, eskerrik askoren truke. Eta ez beti ori be. Irutan euskera utsean. Laugarrenean, baimenak lortzearren, euskera ta erdera egin bear izan neban.

Norbaitek Iñaki Linazasoro tolosarrari emon eutsan eta arek sekulako lana idatzi eban Donosti'ko La Voz de España egunkarian. "Original calendario para un pueblo original. Egutegia 1976-Ondarroa".

EUSKAL ASTEA

Bein jaboia emoten asi ezkerro, jaboia labana danez, nik be ez nekiazan gauza asko jakin nitun. "Augustin, dramaturgo, gastronomada, micologo y ondarr s de pro" besteen artean.

Gero, nire beste lanen artean, urte guztiko egunetan, egun bereko euskal gertakizunak batzen asi nitzan, eta egun bakoitzean zortzi –amar gertaera ezbardin osotzea lortu neban eta bilduma batzuk egin. Pozik artu eusten irratiak eta gaur be eguneroko gauzak gogoratzean, ba dira ori erabilten dabenak.

Euki neban egutegiagazko beste gertaera bat.

Bilbotar argitaldari bat, ez dakit zeñiek aginduta, gertu egoan ormako egutegi bat euskeraz atarateko.

Itandu eusten lanerako gertu egongo nitzan. Baietza emon nebanetik illak igaro ziran. Alako baten Naparroa'ko Elizondo'n batu giñan argitaldaria, Josu Oregi, Mariano Izeta eta napar emakume bat eta ni.

Orduak egin genduzan eztabaidatan, egokitasuna, zelan, euskera gorabera eta abar, baiña urte aretan beintzat ez egoala denborarik ezer egin eta erabagiteko eta bakoitza bere bidean etxeratu giñan, urrengo baterarte... Baiña urrengo ori, urrengo biurtu zan. Ori zanetik ama-bosten bat urte izanarren, oraindik ez da eldu.

Esan neikedana au da:

Ainbat solteko orri azertzen ibili giñan. Gogoan daukat lenengo orritxoan au esaten zala: Urtarrilla. 1.– Asteazkena (Eguastena) Urte berri. Andre Mari, Jainkoaren Ama. Bake eguna. Ba dakit baita gaur erabilten dan Ekaina orde egutegi orretan Ekainilla esaten zala eta Bagilla parentesian. Eta 29'an esaten zala: Pedro ta Paulo Apostolu santuak. Eta esaera zarra: Kuku, San Pedrotan mutu.

Gu mututu giñanean urril ingurua zan.

Orrez gain ba dira sei bat urte, Bizkaiko Aldundiak ataraten dauan Agendarako be ainbat orrialde euskeratu neutsazan orrelakoak argitaratzeko tratulari bateri, baiña ezin leikena au da: dabillenak euskerarik jakin ez, agendak Bartzelonan irarri, agertu bear ziran eperako amaitu edo ez estu la larri, ta andik telefonoz eskatzen ibili lan bat edo besteren itzulpenak, eta atal-buru barriak eta abar. Agenda polit eta txukuna zan egituraz, baiña ez dakit euskeraz akats geiagogaz iñoiz ezer atara dan. Uste dot burukomin asko euki zitula tratulariak aldundiagaz, eta ez dakit batzuk besterik zabaldu ziran be.

Eta aurten nire kontura "Zeregiñak" deituraz, orrelako Agenda, Dietario edo antzerako bat argitaratu eta or dabil, eta esan nei oraiñarte euskera utsean argitaratu dan orrelako bakarra dala.

Eta or dago "Euskerazaleak" egutegia, lanak beste batek lepoan artuta, ni be egille artean aipatzen nabena. Euskerazaleak'eri esker Bizkaian eta beste errialdetan be sartzen da egutegi ori eta nik beintzat berari buruz goramenak besterik ez dodaz artu eta entzun.

Zerbait esan daigun euskal egutegiei buruz.

Deitura

Zelan deitu bear da, edo ze izen erabili, orrelako jaio barn bat dala-ta?

Oraiñarte billatzen diran deituren artean onelakoak aurkitzen doguz:

Urtekari. Ala Laburdi, Benabarra eta Zuberoan.

Egunari. Au be goiko tokietan.

Egutegi? Arana tar Sabin'ek bai, Egutegi Bizkatar atara eban, baiña Azkue ez da ausartzen Egutegi deitzen. Bere Iztegian ez dator berba ori. Eta "Euskaltzale" aldizkarian edo asterokoan be, 1897 urtean, orma-egunari edo **Kalendarioan** (azken au izki makur edo etzanetan jarrita agertzen dau.

Beraz Azkue'k neologismotzat artuko eban Arana'ren asmakizuna. Eta arrigarri dana, Kintana'k, bere Iztegian erderatik euskeratzean egutegi esan eta beste berba askori ezarritako geigarririk ez ipintzea.

Beste batzuk, **Kalandier, kalendari** erabilten dabe.

Justo Garate'k **II-egunak**, au da, illeko egunak.

Eta gero datoz izen bikoitzak:

Eleiz-urtekari,

Eleiz-egutegi,

Gergoriar egutegi, Juliar egutegi,

Egutegi-berri,

Orma-egutegi, eta abar.

Iparraldekoak asko erabilten daben deitura au da: **Almanaka.** Ala Tournier eta Lafitte'k.

Eta gure artean ba dago erderatik artutako berba bat be: **Pronostikua.**

Ez da denbora asko baserritar batek esan eustala: Bilbora zoazan baten, an saltzen da-ta, erosi ta ekarri eidazu pronostikua. Ia kinielak egiten ete ebazan itandu neutsan. Ta berak Zaragozania eroateko. Orduntxe konturatu nitzan zer nai eban. Izan be almanakak agertzen ziran len, eta gaur be, eguraldiaren goraberakaz.

Eta Bilbon be agertu zan 1859-1860 urtean "Eusquerasko pronosticua" deitzen zana. Orrek be sartu eragingo eban orrelako agerkerientzako deitura ori gure zarren artean.

NOIZKOAK DIRA EGUTEGIAK?

Egutegien agerpena eta adierazpena, oitura eta ugaritasunez beintzat, ez da antxiñakua.

Ba dirudi gaztelaniaz agertutako lenena 1677 urterako Iruña'n irarri eta kaleratu zala. "Almanac y pronostico general Tiara año del Señor de 1677" deitzen zan. Bere egillea izarriztilari eta matematikari zan Bernardo Soler. Aragoitarra.

Oartu, almanac eta pronostico.

Bahia ba dirudi askoz aurretik, eun urte aurretik, 1571 urtean, Frantzia'ko La Rochele'n agertu zala euskerazko bat eta a dauke lenentzat. Leizarraga'k agertua da. Jakiña da Leizarraga'k iru liburu argitaratu ebazala eta danak itzulpenak. Bat Testamentu Berria. Beste bat, Abe edo Cristinoen instructionea" eta irugarrena Kalendreran".

Leizarraga, kalbinotar biurtu zan abadea, ez da ain zuzen euskeran eredutzat artzekoa. Baiña or dago bere

agermena. Bere egutegia onela deitzen da: "Kalendrera, bazco noiz daten, ilhargui berriaren eta letra Dominicalaren ezagutzeko manerarequin".

Or ikusten da jai eta izadiko gorabera aldakorren burukomiña edo kezka edo ezaupide naia egoten zala.

Basco noz daten. Au da, guretzat, Paskoa noiz datoren. Ba dakizue Pasko dala urteko jai aldakorren oiñarri. Aurrez eta atzetik beragan mugatzen dira jaiak. Ala 46 egun kenduta lortuko dogu Auts eguna. Pasko egunetik 39 egun igarota dator Igokunde (Asentzio). 49 egun igaro ondoren Pentekostes (Etor); 60 egun igaro ondoren Gorpuzti.

Egun oneik ziurtatzea gauza andi zan lengoentzat, kristautasun fede zintzoan bizi ziranentzat.

Aurte Pasko urtearen asieratik berandu jausi zan. Apirillaren 19'an. Datorren urtean zortzi egun lenago gertatuko da, 11'an; urrengo urtean oraindik lenago, 3'an. Baiña 2.000 garren urtean aurten baiño beranduago gertatuko da: Apirillaren 23'an.

Ez da ba arrigarri, almanakak, nai egutegiak deitu, edo beste "pronostiku" nai edozelako deiturretan, jendearentzat aolkari eta orrelako deituraz-geigarnz atsegin gertatzea.

Deiturretan be igarten da ori.

1852 urtean Pau'n kaleratutako bat Egunari berria edo conseillu oneco almanaca" deitzen da. Ezin ukatu nai ta aize eta ekaitzak iragarri, lurgiñentzat, baserritarrentzat edo edozeñentzat be, gertuta egoteko kontseillu on izaneko ziranik

Beste bat, 1865 urtean Tolosa'n argitaratua, "Euscaldun necazarien adiskide" deitzen zan.

BIZKAIKO EGUTEGIAK

1897 urtean, Arana Goiri'tar Sabin'en Egutegi Bizkatarra argitaratu zan. Bere esanetan Bizkayan lenengua.

Ez eban izenpetzen zeñiek egiña zan. "Bizkatar batek iratzija" esaten eban azalean. Bilbao'n Amorrotu'ren irarkolea. Jardinez 3, Berastegi, 1).

Au izan ete zan bizkaieraz kaleratutako lenengo egutegia?

Onetaz RIEV aldizkariko bere IV garren urteko 148 orrialdean, au irakurten da: (Euskeratuta esango dot).

"Essai d'une Bibliografi de la langue basque" liburuan (Euskal izkuntzarekiko Bibliografi baten aztamu), Egunkari eta Egutegi saillean (452 orrialdean) ainbat euskal egutegi izentatzen dira, 1572 urtean Leizarraga'k atarakotik asita; baiña uzte dodanez danak dira laburdiarrak, gipuzkoarrak, zuberotarrak edo naparrak.

Azkenez, asko alegindu ondoren, nik susmoa neukana ziurtatzeko, liburutxo bat eldu da nire eskuetara, eta orra zelan ziurtatu len esandakoa baiño lenago egon zirala bizkaieraz agertutako egunkari edo almanakak. Orain eskue-tan daukadana, ez da lodia, eta ez dago euskera onean idatzita be. 32 orrialde daukaz eta bere deitura, luzea, au da:

"Eusquerasco Pronosticua milla ta zortzireun ta irurogeiraco Vizcararaco, Guipuzcoaraco ta Aravaraco. Eta da ateria icusbide luce batzuc daucazan Mendi altu batetic, derichona hermita bat Santa Eufemia. Eta da medidua arlabango erditic, aurtengo urteraco dauca epactia zazpi. Letra Domecacia Ag. Beronen autoria Josef Gorosabel. Orra nun ifini dan onen beste papel. Bilbon: Delmasen alargunaren inprenta edo moldizteguian, 1859".

Ez dot uste, eta ziurtapena daukadalakoa nago, ez zala au izango 1897 urte aurretik ataratako bizkaitar egutegi bakarra.

Deitura orrek itxas mareei buruz gure mariñel zarrak erraz ataraten eben "epaktia" (ondarrutarrak **efati** esaten eben) gogora datorkit. Zoritxarrez gaur ba doaz epakta on ondo ataraten ebenak eta gure aurretikoak, eskolarik jakin ezarren, berezko doaia euken orrela denboraren iragana iragarteko.

Julio Urkixo'ren esana or egoan. Baiña txoririk agertzen ez.

Eta 1962 urtean Bilbao'n kaleratzen zan "Jesusen Biotzaren Deya" aldizkarian, "Axmutil"en izenpean agertu zan lan baten au esaten zan:

Noiztik onako dogu gure artean egutegia?

"Itaun oneri erantzuteko eztozu aintzat artuko ez Leizarraga'k bere aldian, amaseigarren gizaldian atara eban "Kalendrera", ezta arrezkero elex-liburu batzuetan ifioiz agertu dan egutegirik. Leizarragarenak oneik besteok oraingo egutegien antz andink eztauke".

"Axmutil" nor dan?

Kontuan euki ezkeroko Axmutil izeneko aitza Dima'n dagola eta ain zuzen be Dima'ko Oba auzo ganean... eta an jaio zala, sekula bear lez txalotu eta goratuko ez dogun gure Akesolo'tar Lino karmeldar ospetsu eta goragarria... erantzuna igarri bear.

Eta Axmutil'ek, au da Lino'k, diño:

"Bizkayan zarrentzat 1859'garrenean egiiiikoa ixentau eban Julio Urkijo'k Zartxoagoak dira Frantzia'ko euskaldunak ataratako batzuk. Orain eun da amalau urte (1848) asi zan Etxeberrri abadea bere egunari edo almanaka ateraten".

Alaz eta Axmutil'ek ziurtasun osoz jarraitzen dau:

"Gitxik yakin dabe, iñok bai? Bizkaian eta bai Euskalerra osoan, Bilbo'n arabar batek egiñikoa dala euskerazko egutegirik zarrena. Gitxik dakie, nire ustez, egutegigille orren izenik bere: Yose Paulo Uribarri. Gitxiagok dakie barriz, euskaldun andi au Okendo'ko semea, Arabarra zanik: Okendon yayoa dogu berau, 1775'garren urtean; Abando'n it zan 1847'n. Abando'n aberesendatzalle (albaiteru) eta zaldi erazle izen andiko izan zan; bertako agintari (bigarren alkate antzeko) bere bai lau aldiz. Bizkayan ezaupide ta adiskide andiak zituen: Gernika'ko batzarretan beste iru bider batu zan Bizkai'ko gizon eta eta agintaririk nausienakaz".

Egutegi orren izena au izan zan: "Euskerazko egunkaria erderazkotik itzuliya Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba'ko Probintziaentzat 1815 garren urterako. Bilbaon".

Lino benetako sagua zan lez gauzak billatu ta argitzen, ba dint) zelan edo zegaitik atara eban egunari on be.

Itxuraz bein erdaldun bategaz eztabaida euki eban.

Euskerea, erdaldun arentzat, ez zan gauza egutegitxo bat egiteko be.

Ulibarri'k eztabaidatu eutsan siniste ori, eta zortzi egun barru berak ekarriko eutsala, agindu be bai, baiña baldintza bategaz: irarteko gastuak ordaintzeko gertu agertzen ba zan.

Erdaldunak baietz erraz esan eta gero... ospa egin Bilbo'tik eta Ulibarri'k dana ordaindu bear.

Itxuraz bere egutegiak entzute eta zabaltasuna artu eban, Napparroatik be eskabideak euki zitun, baiña Ulibarri'k ez eban beste urtetarako alegiñik egin.

Berak egin bear eta erakutsi bear ebana or itxi eban, 1815 urte aretan.

Sabin'en egutegiari buruz zerbait esan dagigun.

baldin **badira**, ainbat tsarrago; ezpadira, Gipuzkoan biotz andi ta buru argidun gizon asko dagoz.

Gauza asko egiten dira, zer egiten dan ondo gogoratu bagarik; eta izan leike beste onenbeste Doilos-tiako Batzarrean iazo edo gerta izatea.

Onan bada, ezeztuako dabela uste dogu orañ amar egun egiñiko utsa. Baifia geuk uste eztoguna gertako balitz, au da, zer egin daben ondo astertu ta gero asmoa beteko balebe, EUSKALZALEK datorren urtetik ~t~ratuko. daben orma-egunari edo *kalendarioan* om au"e irakurriko da:

IRAILA~=AGORRA

20

1897. Egun onetan Donostiako gizategi edo saloi baten batu edo bildu zirean zazpi gizon (emen zazpiren izenak) eta erabagi eben, aurrerantzean *Gipuzkoako oroikarri edo nnnuneentoakrordeteko*, euren laguntzat DON ANTONIO CANOVAS DEL CnsTILLO-ren irudia gizategian bertan ipintea.

Berak Egutegi ori atara ebanean, "Euskaltzale", Azkue'ren eskutik kaleratzen zan astekaria, Egutegiko orriak ataraten asi zan, aldizkari orren azken orrialdean. Domeka, Igandeari yagokon orria ataraten eban. Itargi gorabera ta guzti, santuen baten esaera, eta gero urrengo astelenetik sapatu arterako doneen (santuen) izenak. Besterik ez.

Baiña Azkue'gan oargarri au da: Ikusten da egutegi zabala eta ulergarria egin nairik, asteko deiturak bizkaie-

razkoa eta besteena be sartzen dauzala. Ala Igandea (domekea); Astelena; Asteartea (Martitzena), Eguastena; Eguena; Egubakoitza (Bariakua); Larunbata (Sapatua).

Itxuraz Egubakoitz, egubakotx, egukotx berba Bizkaiko zarrak ba olden erabilten.

Ostera illen izenetan bakarra erabilten daki: Urtarrilla, Zezeila, Epaila, Jorraila, Maiatza, Bagila, Garagarrilla, Agorrilla, Iraila, Urria, Zemendia eta Lotazila.

Arana'ren Egutegi Bizkatarrari buruz esan nei 1933 urtean Euzkeltzale Bazkuna'k barrero argitaratu ebala eta 1985'n Euzkeltzale Sabindarrak'ek izenean.

1920'n be Egutegi Euzkotarra izenekoa kaleratu zan. Eta lenago, 1915'n Euskal Egutegi Txikiya, bizkaieraz, Bilbo'n irarria eta 1920 urtean Euskal Egutegi Txikiya, Tolosa'n.

Tolosa aitatu dogun ezkerro, esan daigun 1909 urtean, Tolosa'ko Eusebio Lopez etxean, "Euskal Esnalearen Egundegiya" deitzen zana argitaratu zala.

Oneri buruz Julio Urkijo'k esan eban: Gure irakurle guztiei eskatzen dautsegu egutegi au erosi dagiela, gaur arte argitaratutako onena dalako. Jakingarri da eta euskera ederrean idatzia. Alaz eta mingarri da tartetan oraintsu sorturiko berba barn batzuk sartzea. (Riev, III urtea, 130 orrialdean).

		4D.~ z.4	
	~	..	4 q
y		BIZKAYAN LENENGUA~	
~	~		nc
f	4:1.	Sizkatali bate* umje	
		I /	
"		G	
"		(. i - URTi^ .	
"r.	7±4		
"	"	IIIIAO	
"	"	A3[OKORTI'RRIR IRA-ROI.IA	
"	"	iWM. >t- — I-	
		WER	
"	"	"y_i	

BESTE EGUTEGI BATZUK

Ba dagoz, ainbat, Euskalerrirako egiñak, baiña ez euskeraz.

Orrelakoetan sartu leike Bayona'n ataraten zan liturjiko. (1805).

Beste bat Auñamendi Beekoetarakoa, Departement des Basses Pyrenees, 1807 urtean.

1808'n Baionako Gotzaitegiak be ataraten eban, Egutegi liturgiku, erromatar eta paristarra. ("Calendrier liturgique Romain eta Parisien").

Naparroako Erreñu, Bizkaiko Jaurerri eta Araba eta Gipuzkoako probintziatarakoa ataraten zan. Oñatin argitaratu izan zan 1836-1839 bitartean.

Karlisten Gobernuak be atara eban bat berea 1840 urtean.

Donostiko Baroja Etxeak "El Calendario de las Provincias Vascongadas, el mas antiguo de España" deiturakoa ataraten dau 1852 urtean asita. Beraz 140 garren urtea izango da aurten asi zanetik. Txikitxua da, 13 x 10. Itxas marien gorabera Donostiko portuan, kaian, urteko mamerik bizienak, Gipuzkoako errietako jai egunak, Baruegunak, eklipseak, Urteko epaiketea, bertsoan, Gero il bakoitzean itargiaren goraberak, denboren iragarpena, illeko baserrietako lanak, kuarta tenporak, letaña egunak, eta abar, 32 orrialdetan. Bere esanetan Gasteiz'ko meridianutik eratua da, San Fernando (Cadiz)tik artutako zeaztasunen arabera.

Bilbo'n be, Delmas'en etxean ataraten zan Calendario Vasco-Navarro bat, iru lau urtetan atara eta 1881'n geratu zan.

Baita gogoratu bear Donostiko Serafin Baroja etxeak 1878 asita, "Santo Tomas'ko ferriya" Almanaque bilingue erderaz eta euskeraz deiturakoa zana ataraten ebala.

Euskalerrriak, bai Iparralde eta bai Egoalde onetan, ezagutu izan dauzan erasoaldietan, gure almanaka, kalendari, egunari, egutegi edo beste edozetara deituetan zotiña eragin eben.

Alaz eta urte batzuk mutu, bestetan izena aldatu... euskal egutegiak beti lortu izan dabe euren sarrera ona euskal etxetan.

Zarrenak, edo geien iraun dabenak, eta origaitik ezagunenak be bai, Almanaka deituak izan dira. Iparraldekuak.

Onelakoa dogu **Almanaca berria edo egunari Ilhabete gucietaco demboraren indicacionearekin eta bertce asko, erran zahar, ticho eta ichtoriorekin.** Bayonan, Lespes. 1879 (24 orrialde).

1880 (37 orrialde).

1881 (36 orrialde).

1882 (38 orrialde).

1885 urtekoak deitura bardiña, baiña ba dauka besteak baiña berba bat geitxuago bere deituran. Au da, bertce asko **contseillu**, erran zahar'en aurrean.

Donibanen agertua da, Deluc etxean, 28 orrialdegaz. Urte onetan beste bat agertu zan Orthesen, Gaude-

Dusmenilen moldiztegian, eta bestetan **ticho eta ichtoriorekin** esaten zana, emen **cantu eta ichtoriorekin** agertzen da.

Geroago dator Almanak berria eta Ziberouko eta Basa Nabarreko egunaria 1888 bisisto. Pau'n agertzen zan, Garet etxean.

1887, 30 orrialdez.

1888 32 orrialdez.

1889 32 orrialdez (Hirougarren Ourthia)

Zeatzago esateko, azken urteak, egiturako urteak dira. Kaleratzeko urrengo urtea esan bear.

Beste izen bereko agerraldi bat Paris'en kaleratu zan Iribarne'k atarata, 1887-1892 urteetan, eta 1914 urte arte jarraitu eban.

Eta gaur be jarraitzen dabe Iparraldean almanakei zintzo eutsi eta erritarren aldetiko atsegiñez eta onarpenez.

Emen, gure alde onetan, Donostian kaleratu zan **Egunaria** izenekoa 1887-1888 urtetan.

Euren denborak eta euren zabalkunde ona euki eben egutegi batzuk gogoratu giñeikez:

ARGIA'ren egutegia, 1922 urtetik asita. Gogoratu ARGIA asterokoa 1921 asi zala kaleratzen Donostian eta 1936 arte indar sendotzen joan zala. Bere itzalpen izen bereko Egutegiak be arrakasta andia lortu eban.

"Jaungoiko Zale"ren egutegia Bizkaia'n, 1925'asita.

"Esku Egundiya", Euskal Esnalea'rena. Irun'en, 1910-n.

"Euzkel Egutegia", 1912 urtean Tolosa'n.

Eta gure gerra aurretxoan ezagutu genduzan baita urrundik euskal mixiolariak bialtzen zituenak. Ala "Gure Ama Taipinfgo (Txina'ko) misiolariena, urte on bat euskaldunei opalduten.

Edo ta Wuhu'ko Egutegia, 1933'en.

Gaur bertan Mariannahill'eko misiolariak be dakie euren egutegia euskeraz be ataraten.

Gerra ostean "Karmengo Ama"ren Egutegia, uste dot 1951 urtean asi zala.

Ainbat esango gendukez, era bat edo bestera, Euskalerriko Eleiztaldeak, orretan arduratu eta kezkatu izan diralako.

Baiña Euskalerrian luzaro iraun eban eta gaur be oraindik irauten dauan Egutegi ezagun bat, frantziskotar fraileak atara izan daben Arantzazu'ko Amaren Egutegia izan da.

Egutegi an gipuzkera ustez argitaratzen asi ziran. Berrogei milla saltzera eldu ziran laster.

Lenengo kaleratzea 1947 urtean izan zan.

Gero, 1952 urtean bizkaierazko argitarapena be egiten asi ziran eta bizkaierazko onek ogeita zortzi (28) urtetako bizia euki eban.

1968 urtean Arantzazu'n artutako euskerarekiko erabagiak, ango fraileak zirikatatu zitun, bear ba da eredutzat jarri nairik, gipuzkeraz ataraten zana, batuan argitaratzen. 1970 urtean zan ori, au da, batasuneko batzarretik urte bira. Baiña egutegia, origaitik edo ta gero eleiz-giroko goraberakaitik, gero ta gitxiago saldu izan da eta gaur amar-amabi milla bitartean dabil bere salketa.

EUSKAL ASTEA

Datu oneik Arantzazu bertatik jaso al izan dodaz il onetan. (1992-VI-8 A. Zurutuza).

Gure azken urteetan zabal dabiltz beste egutegi batzuk be.

Orretan gogotsu ekin dau AEK erakundeak. Bere Nafar Egutegi ta guzti.

Egutegi onetan bereiztasun bat igarten da. Besteetan santuen izenak, eguneko ospakizunetakoak, agertzen ba dira be, emen izen soilla irakurten da, santutasun edo donetasun barik. Ala Erramun, Beñat, Ines, Beonika, Ibai, Xilbestre. Egunean eguneko izena, baiña koroe barik.

Igandetan bai, aurrekaldian Ebanjelioko textu labur aukeratua.

Ba doguz irrisu edo iraultzaille urten nai izan dabenak.

Or dago Akademia Sekretuaren egutegia. 1985'koa gordeten dot.

Emen, lenengo orrian, ez dago ez santurik, ez eta ize-nik be. Ez eguzkirik, ez itargirik. Zeatz zeatz zenbaki andi bat, ilia eta aste ko eguna.

Euskerazaleak'ena ezagutzen dozue. Ba Akademi onena, neurriz, bidartua da. Euskerazaleak'enak 10 x 5 zm daukaz. Akademi Sekretuarenak 14 x 10.

Aurreko orri erdia, geienetan, marrazki, argazki edo irudien bategaz, bere gain erdian. Beste erdia len esanda ko zenbaki, il eta aste eguna. Eta atzean texturen bat.

Baiña ikusi edo oartu edo jakin bere bereiztasun bat-zuk.

Esateko, Otsailla'ren 14'garrena. Gogoratzen zarie egun au ze egun izaten zan? Maite-minduen eguna, "San Balentin" eguna ez al da izaten?

Ba Egutegi onetan zazpi bidar agertzen da 14 orrialde au, danetan textu ezbaidiñagaz.

Beste egun bat: Maiatzaren 1'a.

Egun au iru bidar dator.

Baten, Maiatza 1.—Eta atzean, Internazional'aren lenengo bertsuak.

Beste baten, Maiatza, 1.— Atzean Calamity Jane'ren idazki bat bere alabeari.

Iru garrenean, Maiatza 1. Atzean Lope de Vega'ren antzerki bateko zatitxo bat, gaztelaniaz: Buen dfa de amores boy.

—i Como?

—Es primero de Mayo.

Beste egun berezi bat: Uztailla'ko 18 garrena. Birritan dator.

Baten, zenbaki gaiñean, tirokako argazki bat. Atzean poema baten zati bat egun gorri areik gogoratzen.

Bestean F. Grande'ren "Años" eko zatitxo bat.

Gogoratzen Uztailla'ren 18' an zer gertatzen zan, ez?

Beste egun bat. Abuztua 31.

Egun au bost bidar dator. Oporrei eutsi nai? Ala dim-di.

Baten, Mendiaga'ren "Kantuz" olerkia dator atzekal-dean.

Bestean, Lanaren satira bat.

Iru garrenean, beste zatira bat.

Laugarrenean, "Finitzera doaz gure jaiak...".

Bostgarrenean, ez irudi, ez itz. Mutu.

Egun latza benetan oporrei agur egin eta lanean asi bearreko bezpera.

Beste bat: Urria, 4.

Emen, Aita Crispin Beobide'k 1885 urtean Tolosan argitaratutako "Asisko Loria" liburuaren aurre orria dator.

Kontu egin egun onetan Asis'ko Frantziskoren eguna izaten dala. Aren jantzia eskegitako norbait ete da egutegiaren egillea, egun au arrenkuraz gogoratzeko? Eta atze-an be santu berberari buruzko irakurgaia.

Abenduaren 24'an, orriaren atze aldean, bertso oneik:

Aingeruak esan du

hor mendi gainean,

Jesus jai o zaigula

Belengo estalpean.

Gloria zeruan eta

pakea lurtean,

borondate oneko

gizonen artean.

Ezin esan oitura jatorrak, edo txikitik ikasiak, geroan gogoratzen ez diranik.

Egutegi au Erein Argitaldarian, Donostia'n irarten zan.

Eta egutegi au 500 pesetatan saldu zan. Zenbat saldu ziran? Nik erosi neban. Or be egutegi kanako nire argal-keria ikusten da.

Azken urte oneitan Egunkariak be alegintzen dira euren Urtekariak ataraten, baifia oneik igarotako urtearen oroitzua eta egunetako efemeridesak geiago dira, gure egutegiak euki izan daben "pronostiku" eta aolkari ordez.

Amaitzeko, barrero kanpotik ibili barik etxera biurtu bearra daukat.

Amairugarren urtekoa izango da Euskerazaleak'ek datorren urterako esku artean gertuten darabillena.

Ezin ukatu Egutegi onek bizkaieraren gozotasunez alako eguneko ate zabaltze maitekorra eskintzen dautsa-nik bere irakurleari.

Nire aldetik zorionak emon bear umearen sortzailleari, Euskerazaleak'eri, eta orretan alegintzen diranei, batez be Euskerazaleak'en 25 garren urte onetan, eta zorionak baita be umearen aita besutakoari, aita pontekoari, len Bizkai'ko Aurrezki Kutxa eta orain Bilbao- Bizkaia Kutxari, Egutegiaren sortze eta kaleratzean, antxiñako bateotan lez, Bolo-bolo dirua emon bear izaten daualako. Berari esker bizkaitar eta euskaldun askok, uste baifio geiagok, euskal sen, euskal gogo, bake giro ta euskal mai-tasunez asten dakie gure Euskalerrri bedeinkatu baiña nas-tetsu onetako egunen katea.

ZUBIKARAI'TAR AUGUSTIN

EGUTEGIA

Txiki txikia, lodikotea
da euzko egutegia,
baiña mamiñez ta jakituriz
gizon askoren argia;
izar antzera itz egiten dau,
euskalduna, olan, bai da,
gogo onenaz zabalduen dau
zetzunezko dan guztia.

Era osoan, begiraturik
notiñaren barruari,
janari onak eskeintzen dautsez
gizonen osasunari;
esaldi jator, zoragarriak
giza alaitasunari,
ipuin gozoak kontatu ala
biotz irriparreari.

Kristau legean ezin dauz aztu
Kristoren jakituria
ta lur ontako lagun bikaifien
jokabide egokia;
baita be gero, onen artean
dator olerki pitxia,
eder artean gozartuteko
euskeldunen lo maitia.


PAULIN**Deia Egunkariak 1992'ko Bagillaren 19'an****Augustin Zubikarai, atzo, Euskerazaleak'en
Euskal Astean**

BILBAO. Eguenean, atzo, Zubikarai'tar Augustin'ek egin eban berba eta Alkarte onen lanak aztertzean, Egutegiari elan eutsen.

Egutegien munduan berak egindako lan batzuk gogoratu ebazan lenengo Augustin izlari ezagunak: 1932'an Amorebieta'ko Jaungoiko-Zale Erakunde an asi zan lanean. Gero Ondarroa'n bertako jazokizunak agertzen ebazan egutegia, lau urtetan argitaratu zan, eta beste batzutan alegiñak egin arren ez eban lortzen argitaratzea. Gero Aldundiak ateraten eban "agenda"n sei urtetan emon ebazan bere jakingarriak. Aurten Augustin'ek berak atera dau "Zeregiñak" deritxon maiko egutegia edo agenda. Guztiok dakigun lez, Euskerazaleak Alkartea'k aspaldiko amabi urtetan argitaratu dauan egutegian be kideko izan da Augustin.

Kondaira labur on egin ondoren, egutegiai buruz lan zabalago bateri ekin eutsen Augustin'ek: Izena, motak, noiztik agertu diran (gaztelaniz 1677'an, Frantzia'n 1571'ean...) baiña Bizkaia'n 1897'an Arana'tar Sabin'ek lenengoa dala diño berak baiña ba-dagoz lenagokoak diran almanake batzuk. 1962'an agertu zan Bilbao'n "Axmutil"ek izenpetzen dauan lan bat. Emen egin eban olako azterketa bat eta onek diñonez, Bizkaia'n lenengo egutegia egin ebana arabar bat izan zan Yose Pablo Uribarri. Bide orretatik jarraitu dau Augustin'ek bere azterketa zeatza eta azkenean geure egutegia aztertu eban.

Gaur Alkartearen Zuzendari dan Zubiri'tar Iñaki'k egingo dausku berba eta Alkarteak egin dauazan beste Ian batzuk gogoratuko dauz.



Augustin Zubikarai

ZUBIRI'TAR INAKI'K^N

(BARIKUAN)

Aste onetako egun guztietan Zubiri'tar Iñaki gure Alkartearen Lendakariak egin dau aurkezpena baiña gaur berak berba egiten dauan lez, ez da gauza egokia berak bere burua aurkeztea, eta gure Iñaki'k, gaiñera ez dauko iñok aurkeztu-bearrik, guztiontzat ezaguna dalako.

Dana dala, esan dagidan zerbait, gitxienez bere berbal-dia argitaratzen danean zerbait agertzeko.

Esan dogu bera dogula Lendakaria EUSKERAZALEAK ALKARTEA'n, eta lendakari zintzoa izan be. Zeregin alboratu-eziñak galerazten ez dautsoenean, eta on urten bein inguru izango da geienez, gure Batzordeko batzarretara utzik egiten ez dauana eta erabagiak artzen, zorrotza, argia ta sendoa dana.

Bahia Iñaki'ri buruz here idazle-lana gogoratu bear dogu gaiñera: Eleberri irakurgarriak, olerki-liburu beroak eta aldizkarietako idazlan oargarriak dira difiodan orren lekuko.

Zubiri'tar Iñaki'k gure Alkartearen ekintzak agertuko daskuz gaur: Ogei ta bost urteren joanean, gauza asko egin dira, ekintza asko burutu dira eta ez litzake zuzena izango ekintza orreik gogoratu batik zidarrezko eztegu au igarotea, ez litzake on Alkartean izan diran ainbeste langilleri begi zuzenez begiratzea.

Eztun dagoigun ba, gure Alkartearen Lendakariari.

OLAZAR'TAR MARTIN'EK

GURE ALKARTEAREN EKINTZAK

Neuri etorri yat "EUSKERAZALEAK"en zidarrezko eztegu onetan, gure alkartearen ekintzen aipamena egitea, baiña asi aurretik, zillegia bekit, emendik, gure erakunde-ari asiera emon eutsoen sortzailleak, nortzuk ziran aipatzea.

1967 urtea zan, eta euskerearen aldeko giroa egokia ez izanik be, euskaltzaleen talde txiki batek, gure izkuntzeari laguntzea erabagi eban, eta arloari ekin eutsan, aurrean ebazan oztopoi jaramonik egin bank. Illabeteak igaro ziran, talde onen asmoak egi biurtu baiño len, eta jo emen, joan ara, aren burutara emon, euskereak eskubidea baebala edozein izkuntzak lez bizirik irauteko aldarrikatuz, noizbait, euskal erakunde bateri legezko biziarea emotea jaritsi eban. Gaurtik ikusita, arazo onek gaberdiko auntsaren eztula dirudi, baiña orduko eragozpenak ezagutu ebezanak, orduan egindakoa txalogarritzat eukiko dabe zalantza barik.

Ona emen, euskaltzale arein izenak, eta urrezko izkia-kaz, izan be, idatzita geratu bediz betirako, gure alkartearen agirietan.

Jose Maria Olaizola; Carlos Gonzalez Etxegarai; Fernando de Zubizarreta; Jesus Atxa; Jose Antonio Montiano; Jose de Ezpeleta; Luis Bengoa; Castor Uriarte; Jesus de Oleaga; Jose Maria Martinez de Retana; Miguel Angel Astiz; Eusebio Erkiaga; Juliana Berojalbiz; Leopoldo Zugaza; Juan Ramon Urkijo; Adrian Zelaia.

Gure alkartearen Batzordea onetaraxe eratu zan 1967 urteko Lorailla edo Maiatzaren 14'garreanean:

Lendakaria: Jesus Oleaga Etxebarria.

Lendakari-ordea: Jose Antonio Montiano Gallego.

Idazkaria: Jesus Atxa Agirre.

Diruzaiña: Jose Luis Bengoa Zubizarreta.

Maikoak: Sortzailletariko enparauak.

Batzorde onen laguntzailletzat urrengo oneik jardun eban:

Manu Ziarsolo (Abeletxe)

Nikola Arrieta

Andoni Landajuela

Eusebio Alkorta

Octavio Izaola

Urteen joanean, batzorde-taldeak aldakuntza batzuk jasan dauz (gomutan izan egizue ogei ta bost urte igaro dirala ordutik), eta dalako batzordea onetaraxe osotzen da gaur:

Lendakaria: Zubiri'tar Iñaki

Lendakari-ordea: Olazar'tar Martin

Idazkaria: Egileor'tar Yon

Diruzaiña: Bilbao'tar Yon Erramun

Maikoak: Solozabal'tar Paulin, Egurrola'tar Iñaki; Aldekoetxea'tar Mikel; Malaxetxebarria'tar Yon.

Asiera batetik, Batzordearen ekintzarik beifiena, euskaldun barrientzako euskal ikastaroak sortzea izan zan, eta ezagutu dagizuen zelako garrantzia izan dauan arlo onek, ona emen zenbaki batzuk euskeraren irakaskintzari buruz, asieratik ona:

1968-69-70-71' an.....	1.000	ikasle	gitxi	gora-beera
1972' an.....	314			
1973-74-75' an.....	985			
1976'an.....	380			
1977'an.....	502			
1978'an.....	460			
1979' an.....	565			
1980' an.....	460			
1981'an.....	465			
1982' an.....	402	"	"	"
1983'an.....	298	"	"	"
1984' an.....	302	"	"	"
1985'an.....	207			
1986' an.....	175			

1987' an.....	98 ikasle gitxi gora-beera
1988'an.....	70
1989'an.....	58
1990' an.....	42
1991'an.....	53

Au da, 24 ikasturtetan ...6.842 ikasle

Uda ikastarotan:

1979' an.....	65 ikasle
1980' an.....	80
1981' an.....	60
1982' an.....	98
1983' an.....	42
1984' an.....	80
1985' an.....	30
1986' an.....	20
1987' an.....	8

.....485 ikasle

Arrezkero, eta ikasleen kopuru-beerakadea ikusirik, ez dogu beste Udako ikastarorik atondu, baiña bataz beste, gure ikas-gelatatik 7.327 ikasle igaro dira 24 urteotan.

Ogei ta iru irakasle izan dira ikasle-kopuru oneri irakatsi dautsoenak, eta ona emen euren izenak:

Karmelo Etxenagusia; Jose Maria Makua; Kepa Dañobeitia; Yon Malaxetxebarria; Bitori Agirre; Bautista Goikoetxea; Felipe Olazaran; Benito Otazua; Josu Arregi; Bernardo Ibarra; Imanol Lejarza; Elixabete Elgezabal; Jose Agirre; Josu Legarreta; Ixidor Etxebarria; Jose Agirrezabala; Margari Alonso; Agustin Etxebarria; Karmele Fernandez; Iranzu Dañobeitia; Sorkunde Bilbao; Kontxa Barrutia; Luis Larrinaga.

Ekiotan orain, gure alkartearen "ZER" illerokoari. "Euskerazaleak" sortu zanetik, batzordeak beti erabili dau gogoan, erri-euskerak izan bear leukela irakasteko euskerea, eta Bizkai'koa izan be. Augaitik ba, asiereatik ona, bizkaiera jatorra izan da gure etxean irakatsi dana, eta areago, gogoan artzen ba'dogu, Bizkai'ko euskereari egin yakon destaiña. Erriko erakundeek, jaurlaritzatik asita, gure Araudia edo Estatutoa lortu zanetik ona, ez dabe aintzakotzat artu beste euskerarik, dalako "batua" baiño, geure euskerea- aide batera zearo lagata, bigarren edo irugarren maillako euskerea bai'litzan, bizkaitar neska-mutikoai, eurena ez dan euskeraz, batuaz izan be, nai-ta-ez irakatsirik. Onezaz gaiñera, lengo idazkera erraza ta zentzuduna aide batera itzi, eta oguzten edo ebagitzen ez dan "H"z jositako idazkera zentzunbakoaz idazten beartuz norberaren gurariaren aurka. Eta au gitxi bai'litzan "N" ta "LL" kendu egin dabez.

Au ikusirik, eta Bizkai'ko euskereak aldizkari baten bidez bere abotsa izan egian, "ZER" illerokoa sortu genduan, Bizkai'ko euskera errikoiaz idatzita, eta Arana Goiri tar Sabiñ'en idazkera-legeetan oiñarrituta.

Olan ba, lenengo ale edo ijekia, 1977'ko Garagarri-lla'n agertu zan, eta ordutik ona, etenbarik illero-illero

bazkideen eskuetara eldu da. Esan dagikegu, beraz, gaur amabosgarren urtebetea burutu dauala gure alkartearen aldizkariak, euskaltzaleai irakurgai erraz eta jatorrak emonez gaiñera, bidebatez, irakurleai, gure alkarteari dagokiozan oar, barn, eta beste jakingarriak jakiñerazoteko.

"ZER"en zuzendaria ta lanen alkartzaillea asiera bate-tik, Olazar'tar Martin izan da. Ain zuzen be, batzutan estu ta larri ikusten dau bere burua, bear beste idaz-lanak eskuetara ez datorkiozanetan. Augaitik gaurko eretia ustiatuz, idazle guztiai barrero be dei egiten dautset nagia aide batera itzirik, bear dogun laguntza idaz-lanakaz emon dagiskuela.

Aldizkariak gaiñera, "Euskerazaleak"en batzordeak uste izan dabe oso lagungarria izango litzakela gure elburuarentzat, egutegi bat argitaratzea, eta idazle-talde baten laguntzaz, asi zanetik urtero agertu da, Bilbao Bizkai'ko Kutxa izanik, elburu onetarako diru-laguntza emon dauana. Euskaldunak oso nagia dira euskeraz irakurteko, baiña gure basetxetako sukaldeetan ormatik egutegi bat eskegita ikustea, eragingarria da zalantza barik, egunero zatitxu labor bat irakurteko.

Gure egutegia 1981'ko urtean agertu zan lenengoz, eta ordutik ona, uts egin barik agertu da. Aurten, beraz, 13n'gn egutegia irarriko dogu.

Izkuntza batek iraun dagian, idazle ugari ta onak bear dauz, eta au gogoan artuta, Ipuin-sariketak eratu doguz urtero, 1980 urtean asita; aurtengoa, beraz, 13'gn leiaketea atonduko dogu, oi dan lez Gabonetan. Idazteko trebetasuna ekiñaren-ekiñez jaristen da: Ez uste, perretxikoen antzera sortzen dala.

Beste ekintza bat, "Euskal Astea Bizkaieraz" atontzea izan da, eta 1984'ko urtean asi gintzazanetik ona, 7 emonaldi ospatu dira, guztitariko gaiak oiñarrizat artuta. Ospakizun oneik, gaurkoa egiten dogun lez, Eskolapiotarren ikastetxean gertatu dira, eta gaurko eretia ustiatuz, emendik eta agirian, bioakide eskolapiotarrai gure eskerrik biziena, etxe onetako ateak guretzat zabalik aurkitu doguzalako beti.

1985 urtean ipuiñak apaintzeko, marrazki-sariketa baterako dei egin genduan, eta urrengo urtean komiken sariketa bat atondu zan.

Gerediaga durangotar alkarteak, urtero-urtero liburu ta diska Azoka bat atontzen dau, eta badira zazpi urte uts egin barik, Euskerazaintza Erri-akademiarekin batean, gure agerkariak salgai ipinten doguzala.

Egia esateko, len aipatu dogun nagiagaitik, ez dogu salketa andirik egiten, baiña bearrezkotzat daukagu guztitariko aalegiñak egitea, gure erritarrakan irakurteko zale-tasuna piztutearren. Erakusketa au Gabonilla'ren asieran ospatzen da, eta aurten be tartekoak izatea asmatzen dogu.

Euskal alorrean nabarmendu diran idazle batzui, Euskerazaintza'rekin atondu geutsuen gorazarreak edo omenaldiak. Ona emen aipamen batzuk:

Bedita Larrakoetxea'ren aide Zeanuri'n egindakoa 1980'ko Dagonilla'ren 17'gnean.

Lauaxeta olerkari andiaren goratarrez, Mungia'n egindakoa 1987'ko Bagilla'ren 17'ganean.

Aita Lino Akasolo jakintsuari, Dima'n eskiñitakoa 1989'ko Garagarrilla'ren lenengoan.

Gabriel Manterola'ri Zeanuri'n ospatutakoa 1990'ko Epailla'ren 17'ganean.

Guenez, aipatu gura dot emen, Retolaza'tar Jose Antonio'ren zuzendaritzapean argitaratzen dan Kili-kili, umeak euskalduntzeko aldizkaria. Asiera baten, eta euskal arazoetarako laterriko legeak oso zorrotzak izanik, aurkezten yakozan oztopoak garaitzeko, dalako aldizkaria legearen aldetik "Euskerazaleak" en gerizpe edo babespean argitaratzen asi zan. Aldiaren bidean, baiña, bearrezko garapena lortuta, eta lege-aldetiko eragozpenak gitxiturik, gai izan da bere kabuz egan egiteko, eta orra or bere nortasuna lortuta, euskal alorrean bere biziko lan onuratsua egiten dauala Euzkadi osoan. Urte askotako iraupen emonkorra opatzen dautsagu, Retolaza'tar Jose Antonio'ren ardura trebepean argitaratzen dan aldizkari begiko oneri.

Aipaturiko ekintza oneik dira andi-andika, orain arte "Euskerazaleak" alkarteak euskeraren aide buruturiko ekintzak. Aurrera jarraitu aal izateko, gure bazkideen laguntza bear dogu, euren adoreaz aurrera ekiteko. Eta ona eldu garean ezker, bearrezkotzat daukat agirian autortzea, Bizkai'ko Foru Aldundiko Kultur-sailetik artu izan dogun diru-laguntza gure asmoak egi biurtzeko.

Ez neuke txosten oneri amaia emoterik nai, gure alkarteak izan dauan arrakastea lortzeko, aalegindu izan diran lau adiskideen izenak emon batik.

Xabier Peña. Asiera-asieratik gizon andi onek, bere laguntza jakintsua emon eutsan eskubete, jaio-barria zan gure alkarteari. Berak sortutako ikasbideak erabilten doguz gure ikasmailletan, eta Jaungoikoak lagun, urte askotan erabilliko be, zentzunik eta argitasunik andienaz egifliko eliztiak edo gramatikak diralako. Bera gipuzkoarra izan arren, bizkaiera sakon-sakon ikasi eban, bilbaotarra euren dan Bizkai'ko euskera irakasteko, eta maisutza arrigarria lortu eban irakaskintzan. Andia baizen apala izan zan, etenbarik euskalduntza-lanari buru-belarri lotuta, euskeraz eta euskerarentzat bizi izaten zala. Gure artetik joana da, eta ezagutu genduanok, bere gain-gaiñeko jakituri ta ontasuna ez doguz iñoiz aztu egingo.

Karmelo Etxenagusia. Ona emen beste euskaldun jakintsu ta jator bat. Lenengo egunetatik gure alkartean irakasle zan genduan, eta gure berbetea erraza biurtzeko, gitxi bera baizen zentzudunak. Nik neuk eleizan euskeraz berba egiten entzun dautsat, eta zoragarria da bere euskera jator, errikoi, eta erraza entzutea. Bere erdua artuko ba'lebe askok, ez genduke entzungo gaur bazterretan aditzen eta idazten dan euskera trakets ori. Euskal aste onetan berba egiteko zan, baiña zoritxarreko berebil-izbear baten, larri zauritua izan zan lengo egun baten. Zorionez, baiña, kinka larria garaiturik, onik urten da, eta uste dogu luzaro bank gure artean izango dogula.

Jose Antonio Montiano. Au bai gizon ona ta arteza....! Ez zan, aurretik aipatutakoen baizen euskaldun jatorra. Erdeldun jaio zan, baiña gure abendaren izkuntzarekiko maitasun andiak eraginda, euskaldun barria biurtu zan. Euskal irakasle izan ez arren be, irakaskintzaren arloan benetako ezagularia zan, eta bere aolkuak aintzakotzat artzen ziran gure etxean. Euskereari eutsan maitasunak eraginda, Juan Ramon Urkijo'rekin iztegi bat argitaratu eban, gipuzkerea ta bizkaiera oiñarritzat artuta. Ez da "Espasa" dalakoaren antzekoa, baiña baditu 10.000 bat itz, eta oso lagungarria azaltzen da euskeran sakondu gura dabenen ikasleentzat. Iztegi au, Karmelo Etxenagusia ta Xabier Peña'ren aolku-emoteaz egiña da. Gure etxean geien saltzen dan liburua da, eta egillea gugandik joan arreri, bere oroitza bizirik irauteko lagungarria izango dogu iztegi ori.

Jesus Oleaga. Zuzenbagekeri barka-eziña litzake, legegizon ospetsu au gaur gure artean ez aipatzea. Bera izan zan gure alkartearen sortzailletariko bat, eta lenengo lendakaria, eta onek zeozer esan gura dau bere aide. Berak niri esana da, garai aretan gaingitu bear izan ziran ostopokak, txarto-ikusia, eta euskeraren aurkako giroa, baiña olan eta guzti be, eragozpenak baztertu izan ziran, eta guretzat egun zoriontsu baten, gaur ogei ta bost urte, "Euskerazaleak" jaio zan. Gizon azkar eta apal oneri, zor dautsagu ba, neurri andi baten, len aipatutako ekintzak egi biurtu zeitezat. Gure alkarteak iraun dagian artean, Jesus Oleaga deduzko lendakaritzat eta onularitzat izango dogu. Txalo hero bat berarentzat.

Eta amaitzeko, zuen gomutara ekarri gura dot, biar Larunbata, gure alkartearen ildakoentzat meza bat izango dogula San Anton eleizan ordu batetan, eta jarraian, lagun-arteko bazkaria Urkia jatetxean.

Besterik ez Jaun-andreok.



Oleaga 'tar Jesus Deduzko Lendakaria

Deia Egunkarian 1992'ko Bagillaren 20'an**Zubiri Lendakariak emondako berbaldiagaz**

Atzo amaitu zan Bilbon Euskerazaleak-en Euskal-Astea

Barikuan, atzo, amaitu zan Euskerazaleak Alkartea'ren Euskal-Astea.

Azkenengo berbaldia, Alkartearen Lendakari dan Zubiri'tar Iñaki'k egin eban eta erabilli eban gaia "Alkartearen ekintzak" izan zan.

Aste-barruan ekintza batzuk aztertuta geratu dira, esaterako argitalpenak eta Egutegia, baiña ekintzen mundua askoz zabalagoa da eta ikuspegi orokor bat emon eban Iñaki'k.

Eskoletara euskerea sartzeko millak izenak agertuz egin zan eskaria agertu eban lenengo eta gero Euskerea irakastea, urtero egiten dan Euskal-Astea, ZER aldizkaria argitaratzea, ipuin-sariketa bat, Batzordeak egiten dauan illeroko batzarra, Euskerazaintza Euskerearen Erri-Akademia sortzeko egin eban lana eta abar.

Paulin Solozabal'ek egindako bertsoakaz amaitu zan Euskal Astea eta gaur barrero alkartuko dira Euskerazaleak, 25n. urteko ospakizuna egiteko.

Ordu batetan izango da mezea San Anton'en eta ordu bietan bazkaria Urkia Jatetxean. Bazkari onetara joateko, aurretiaz dei-txartela eskatu bear da Euskerazaleak Alkartean.

Astea amaitzerakoan eskerrak emon bearrean gagoz, laguntzaille izan doguzan guztiai, batez be izlari izan diranai eta itzaldiak egiteko lekua itzi dauskuen lekaide Eskolapiotarra...

ALKARTEAREN EKINTZAK

Oin ogetabost urte aldia ez zan garai egokia, atzerritarrak euken azpian, euskaldun erri maitia; makilla-eta txito ixilik bestelan da espetxia, berrogei urtez, olan, izan zan euskaldunen illetia.

Alan da guzti, euskal-zalek ernai ebiltzan lanean, euren asmoak iritxi nairik euskeraren alorrean; ele-bitara itz egitea nai eben euskal eskolan ta baimen on lortu izan zan Madrildik zorionean.

Euskaltzaleak aurrera doaz idazten eta lanean, ZER aldizkari, urre pitxia, illero dator sasoian; onen inguru ainbat liburu agertu ditu aidean, aurrera, beti, euskaltzaleak euskeraren izenean.

PAULIN

**EUSKERAZALEA[ALKARTEA****ZIDARREZKO EZTEGUA****1967 -1992****EGINKIZUNAK****Euskal-Astea (Bagillaren 15'etik 19'ra)****Meza Santua (San Anton'en)****Lagunarteko bazkaria.****1992—6—20**

Euskerazaleak Alkartea'k bere etxean, Zidarrezko eztegu onen gomutakia dau. Argazki onetan agertzen da: Or agertzen dira, labur, egin diran ekintzak: Euskal-Astea, San Antongo mezea ta lagunarteko bazkaria.

BIZKAIKO FORU-ALDUNDIA

LAGUNTZAILE

EGUN AUNDIA

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'rentzat egun aundia da gaurkoa, ogei ta bost urtetan egindako lana ezagutu-errazteko eguna dalako.

Gizon asko eta aundiak izan doguz lankide ta laguntzaille eta gizon oneik oorez aitatu dira egun oneitan. Olantxe bear zan, esker ona agertzeko, bakoitxari zor jakona emoteko.

ERANKUNDEAK LAGUNTZAILLE

Batzuk geiago, beste batzuk gitxiago, bakoitxak izan dauan almenaren edo gogoaren neurrian. Erakunde asko izan doguz laguntzaille: Jaurlaritza, Bilbao'ko Udala, Aldundia, Bilbao Bizkaia Aurrezki-Kutxa...

Baiña onein artean geien agertu dana, geien lagundu daukuna Bizkai'ko Foru-Aldundia izan da.

Ez dago esan bearrik, esker onez gagozela eta euskerearen aide, Bizkai ko euskerearen aide egiten dauan lana aintzat artzen dogula. Zalantza barik geieago bear da, baiña egiña eginda dago eta jarraitu dagigun.

OSPAKIZUN ONETAN

Guk ondo dakigu Erakundeetako Arduradunak zelako estualdiak izaten dabezan daukezan eginbearrai

erantzun eziñik. Orregaitik, deia egin arren, ezin etorri izan dira ospakizun onetara, baiña Bilbao Uriak bialdu dau here Ordezkaria, omenaldi osorako ez ba'da, gitxienez San Anton'en izan dan mezarako. Eskerrak Erakunde oneri.

Foru-Aldundiak Erakundeen Sailerako Arduradun dan Jose Manuel Legarreta bialdau dau egun onetarako. Eskerrik asko.

Gaiñera, egun onetan izan diran ekintzetara dirulaguntza be emongo dauala itxaroten dogu, esan daukuenez.


GOMUTAKIA

Gure esker ona aundiagotzeko, beste zio bat ezarri dau Foru-Aldundiak: Egun au gogoratzen dauan eta maian ezarteko dan zidarrezko lauki eder bat emon dauku. Orri onetan agertzen da argazkia. Lauki orretako izkiak auxe diño: "Bizkaiko Foru - Aldundiak, Euskerazaleak alkarteari, bere Zidarrezko ezteguetan, ogeitabost urtetan egin dauan Ian andiagaitik. 1992ko ekaiñaren 20'an".

Lauki on guri eskuratzeko orduan "Aldundia gure ekintzen atzean egon dala" esan eban Jose Manuel jaunak.

Barriro be gure esker ona Bizkaitarren Erakunde aintzagarri oneri.

EUSKERAZALEAK



GAURKO EUSKERAZALEAK

BATZORDEA

TALDE AUNDIA

EUSKERAZALEAK ALKARTEA ez dira, oso-osoan eta gogoz euskera arloetara sartu diran zortzi batzordekide.

Mila ta berreun inguru euskalzale dira Alkartea osotzen dabenak. Eta au talde edo alkarte aundi bat da. Ori ez dogu sekula aiztu bear.

"ZER" ALKARTZAILLE

Talde aundi onek, zori onez, alkartzaille dan lotura eder bat dauka: "ZER" aldizkaria.

Taldeak, batez be aundiak diranean, bizitasuna galtzeko arriskua dauka. Gaiñera oso gitxi izaten dira urtero egiten dan Batzar Nagusira etorteko aukerea izaten dabenak. Orregaitik ederto jatorku alkartasuna sendotzeko, illero artzen dogun aldizkaria.

URTEKO SARIA

Alkarkideak urtero milla ta berreun pezetako saria ordaintzen dabe.

Ondo dakigu geienak gogotsu ordaintzen dabela sari au, egiten diran lanak ikusten diralako eta Bizkai'ko euskerea benetan maite dabelako.

Oneik dira barren-barrenetik alkarteari eusten dau-tsoenak. Ez daukagu beste ezer esan -bearrik auxe baiño: "Aurrera mutillak". Alkarkide barriak bear doguz eta pozik artuko doguz.

BATZORDEA

ALKARTE onetan lan berezia, iraunkorra, egiten dau Batzordeak.

Zori txarrez, ez dogu atera gaurko batzordearen argazkirik. Tamala. Baiña emen agertzen dogu argazki bat eta or ikusi daikeguz Foru-Aldundiko Jose Manuel Legarreta adiskideagaz batera, Iñaki Zubiri gure Lendakaria, Martin Olazar Lendakari-ordea eta Jon Erramon Bilbao Diru-zaiña. Zubiri'k ardura aundia artzen dau batzarrak egokiro eratzeko eta erabagi ego-kiak artzeko, Jon Erramon Bilbao dogu gure artean

lanik aspergarriena egiten dauana: Diru-arlokoa eta agiriak gertatzeko lana. Argazkian agertu ez arren, aitatu dagiguzan banan-banan Jon Egilleor idazkari zintzoa, Paulin Solozabal maiko arduratua, Iñaki Egurrola zabalkundea egiten trebea eta oraintsu batzordekide eta pozbide izan jakuzan gazte bi: Mikel Aldekoetxea ta Jon Malaxetxebarria.

Illero birritan alkartzen da, lenengo ta irugarren eguenetan, batzorde au eta onexek daroa aurrera ekin-tza guztien ardurea.


GOGOTSU

Lana aundia ta sarritan neketsua izan arren, gogotsu gogoz jarraitzeko eta gutzat pozik aundiena litzake geuk baiño obeto lan au beteko daben batzordekide barriak izatea.

Maite dogu Bizkai'ko gure euskerea, egoera larrian ikusten dogun gure euskalki ederra eta lan eta lan ekin-gu dogu bizia ta adorea daukaguzan artean.

Aurrera beti !!!

EUSKERAZALEAK ALKARTEAREN BATZORDEA



ZIDAR-EZTEGUAREN OSPAKIZUN-EGUNA BILBAO'KO SAN ANTON ELEIZAN

MEZA AURREAN

Ongi etorri otoi-etxera,
kristau euskera-zalia,
gure. Egillea gurtuko dogu
bera dalako bizi;
esku aretan agertuten da
guk bear dogun guztia,
gogo onenaz egin dagiogun
bear dogun eskaria.

PAULIN

MEZEA

Abestia: Alkartu danok.

Sarrera: Senideok, gure fedea eta erri-zaletasunak baten gaitue gaur Mai-Santuaren inguruan. Eta erriari laguntzea fedea eskatzen daukunez, guk izkuntzaren bidea artu dogu erriari laguntzeko.

Une onetan gogoan daukaguz gure aurretik joan jakuzan bazkideak eta gaur Alkarte onetan kideko garan guztiak.

Asieran, eskatu dagigun Jaunaren errukia EuskalERRI guztiarentzat eta geutzat.

1.º Irakurgaia: Apok. 7, 9-10:

Oarra: Jaunaren berbeak izkuntza guztietako jentea baten dala an Aitaren etxean gogoratzen dauku eta on pozgarria da guztiontzat.

Apokalipsis Liburutik

9 "Gero, begiratu ta iñok ezin zenbatu eikean enda, jatorri, erri ta izkera guztietariko talde aundi bat ikusi neban aulkian eta Bildotsaren aurrean, soifneko zuriz jantzita eta eskuan palma-adarrak eukezala. 10 Eta deadarka auxe iñoen: "Gure osasuna, aulkian jesarrita dagoan geure Jaungoikoari zor dauzagu, eta geure Bildotsari!" 11

Abestia: Kanta Jaunari...

2n. irakurgaia: Mat. 26, 69-73.

San Pedro larrialdi baten, bere izkerek salatu eban: Geure izkuntzak agertzen gaitu garan lakoak.

Jesukristo Gure Jaunaren Ebanjelioa; Mateoren liburutik.

69 Bitartean, Pedro Kanpoan egoan, atartean jesarrita; eta neskame batek, aregana urreratuta, auxe esan eutsan: "Zeu be ba-zengozan, ba, Jesus Galileatarragaz". 70 Baiña Pedro'k ukatu egin eban guztien aurrean, esanez: "Ez dakit zer diñozun". 71Eta ataurrera yoiala, beste neskame batek ikusi eban, et an egozanai auxe esan eutsen: "Ori be Jesus Nazaretarragaz egoan". 72Eta barrero be Pedro'k zin eginda ukatu: "Nik ez dot gizon on ezagutzen" 73Gerotxoago, an egozanak Pedro'gana urreratuta, auxe esan eutsoen: "Bai, zu be areitarikoa zara, zeure izkerak berak be salatu egiten zaitu-ta!".

Berbaldirako gaiak:

Senideok: 25 urte dira EUSKERAZALEAK ELKARTEA'k bere lana asi ebal, fededun jentea eta abertzaleak ziran asiera on emon ebenak eta orregaitik alkartzen gara gaur Mai Santuaren inguruan.

Izan be geure fedea garoaz urko laguna maitatzera, geure erria maitatzera.

Itzaldi onen gaia Bibliatik artu dot. Pedro'k, makaltasun-une baten bere izakerea ukatu egiten eban, ez zala Jesus'en jarraitzaile esanez, baiña lagunak izkuntzatik ezagutu eben: "Zeure izkuntzak salatzen zaitu" esan eustoen.

Zer esan nai dau gutzat esaldi orrek?

Pedro Galilea'koa zan eta ango izkuntza egiten eban. Izkera on ez zan Jerusalem'ekoaren lako bardiña eta ortik ezagutu eben.

Gure izkera be Bizkai'koa da eta ortik ezagutuko gaitue. Gaur askori esan gaunkio: Alegintzen zara beste izkera bat erabilten, baiña zure izkerek berak salatzen zaitu.

Bizkaiera da ba, gure nortasuna, dan lako, erakusten dauana.

Zer egin bear dogu?

Gure bizkaiera erabili, orixe zan Alkarte onen elburua eta bide orretatik joan dira beronen ekintzak.

Gure izkuntza au edertu, landu, idatzi eta sendotu.

Eta GURE Bizkaierak agertuko gaitu EuskalERRIAN eta euskera osoagaz batera mundu guztian garan lakoak, iñor ukatu barik, ezer galdu batik.

MEZA ONDOREN

Mundu onetan jazo izan zan ilte ikaragarriaz,
lur eta arriak, dardaraz, ziran danak bildur ta ikaraz;
eguzki bera zeru altuan,
negarrez, egoan lotsaz,
eta argiak estaldu zitun lur dana illunduagaz.

Ordu onetan ospatu dogu Jesusen esan maitia,
nekeak neke Kurutz Gorrian eskeiñi euskun bizia;
argitu Jauna, EuskalERRIA,
ixuri zure grazia,
gure izkuntzan gora zaiguzan ta gero lortu zoria.

PAULIN

TOMAS URIBEETXE BARRIA

KULTURA-ALDUNAK BERE ESKER ONA

Bizkaiko Foru -Aldundiaren Kultura-Sailleko aldun dan Tomas Uribeetxebarriak, urrutidazkiaren bidez, bere esker ona agertzen dausku eta kanpotik ibili-bearra daukalako here etorri-eziña agertzen dau. Gogoan izan dogu ospakizun onetan eta bera gugaz alkartzeagaz poztu egin gara:



TOMAS URIBEETXE BARRIA
Bizkaiko Foru Diputatuaren Diputatuaren Fundazioa

KULTURA / CULTURA

Bilbon, 1992ko Ekainaren 16an

EUKERAZALEAK
EUSKERAREN ALDEKO ALKARTEA
ASOCIACION PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA
Colon de Larreategi, 14-2º
48001-BILBAO

Jaun estimatuok:

Asko eskertzen dausuet zuen ospakizunera egiten deustazuen gonbitea, baina, egun horreetan kanpotik ibiliko nazanez, nire zorionik beroenak emoten deusuedaz alkarte horren zillarrezko ezteguagatik, eta nire esker ona here agertzen dausuet hainbeste urteetan egin dozuen behar onagatik.

Atsegin handiz agurtzen zaituet.



ADRIAN ZELAIA EPAIKARI JAUNAK

Bilbao'n, 1992'ko bagillaren 11'n

Oleaga'tar Jesus jaunari

Bilbo'ra

Adiskide:

Zuk ondo dakizu, gure bizitzearen joanean ainbat gauza egin doguzala alkarragaz, eta zugaz batera ekin ezker, olako lanak ezin eikezan egin Euskalerra bedeinkatu onegaitik eta beronen gomutapenez baiño. Eta ekintza guzti orrean barruan ez dago nitzat ezer barrukoago eta atsegingarriagorik zure ondoan eta lenengo aldietan "Euskerazaleak Alkartea"n lan egin izatea baiño.

Ogei ta bost urteak bete diran egun oneitan samingarria da nitzat zuri auxe esan-bearra: ospakizun orreitan ezin izango nazela kideko izan, gure botxo onetatik urrin egon bearrean nagoalako. Arren eskatzen dautsut, barri au emon dagitsezula, nire guraririk onenakaz batera, batez be Zubiri'tar Iñaki'ri eta Batzordeko diran beste lankideai.

Gauza pozgarria da, guk artu gendua eziketa erdeldun-erdelduna aurrerantzean ez dabela orrelan artzen gure seme-alabak eta illobak ikustea eta, bear ba'da, geuk be aldakuntza orretarako ondar-aletxu bat ezarri dogula. (Ona arte ZER'en Idazkolan euskeratua da, emendik aurrera berak idazten dau euskeraz).

Zori txarrez, ni euskeraz larri nabil. Zuk ba-dakizu eta parkatuko dozu ori.

Bahia datozen urte ta mendeetan beste gauza barri bat izango da.

Besarkada bat eta zorionak danoi.

Agiri oneik agertu ondoren, beste barri oneik be emon bear doguz:

Aldundiaren izenean Legarreta'tar Jose Manuel etorri jakun bai Mezara eta bai Urkia Jatetxean egindako bazkarira eta zidarrezko lauki eder baten Aldundiaren gomutakia eskiñi euskun. Orrez gaiñera gure ekintzen ostean eta ekintzak bultzaten izango zala Aldundia esan euskun. Eskerrik asko.

Bilbao'ko Udalaren izenean Ana Reka Udalkidea etorri zan. Aurretiaz esan euskun bazkaltzen ezin izango zala maikide, baiña mezan izango zala. Eta antxe izan genduan geure artean.

Bizkai'ko Lurralde Ordezkaritzatik, Balendin Lasuen'ek eskutitzaren bidez agertu eban bere ezin-etorria.

Aurrekoetxea'tar Txomin'ek urrutizkiñez agertu eban bere ezintasuna.

Roman Berriozabal'ek be ezin etorria agertu eban urrutizkiñez.

Guztai gure eskerrik beroena.

EUSKERAZALEAK

ARDANTZA LENDAKARIA

GOGOZ GEUGAZ

Ardantza Lendakari jaunak urrutidazki baten bidez, bere agurrik beroena eta gugaz alkartu-eziña agertu dausku. Eskerrik asko Lendakari jauna!

RAFOS * CORREOS Y TELEGRAFOS * COM

32101 BI TGN 2
35217 EUJK E

EUSKO JAURLARI TZAKO LEHENDAKARI TZAREN TELEGRAMA


GASIEI ZEN 1992KO EKAINAREN 18

EUSKAKAREN ALDEKO ALKARTEA
COLON DE LARREATGUI 14-2.
4&001 BILBO

18 095

668

BILBAO - TELEX



LEHENDAKARI ARI IZENEAN ESKERTU NAHI DILEGU DA TORREN
EKAINAREN 20AN EUSKARAZALEAK ALKARTEAREN OSPAKI ZUNEAN
PARTE HARTZEKO EGINDAKO GONBIDAPENA.

LEHENAGO HARIUTAKO KONPROMISUA DI TUENEZ LEHENDAKARIA
EZIN IZANGO DELA JOAN ESAN BEHAR DIZUGU.

AGUR 6E40 BAT

BEGO-A SALINAS SOLANO
GIZARTE ETA ERAKUNDE HARREMANETARAKO IDALKARI NAGUSIA

32101 BI TGN 2
35217 EUJK E



Mesa San Anton 'en

Izkuntz eder bat, bardingabea,
jakitunen eritzian,
asabengandik artu genduen
mendi ta zelai artean;
aldi artako giza- semeak
ba eben gatza soñian,
baita be argi dizdizaria
euren bekoki gainian

Munduko izkuntz guztiak dagoz
alkarrekin kideturik,
euren arteko jakituriaz
eta ederrez josirik;
eun da geiago dira taldeak
eder ta antzez landurik,
gure izkuntza, bakarrik, dago
seigarren maillan tinkorik.

Izar aundioi jarraiturikan
agertu ziren gizonak,
Bizkaiko seme lerdin zirenak
Sortuz "EUSKERAZALEAK";
euskera zarra indartu nairik
zabalduz beren bideak,
izkuntz eder bat izan egien
Aitorren seme-alabak.

Euskaldun enda, zoragarria,
antxiñateko loria,
alkar aitzeko sortu zenduen
pilosopizko elia;
Eguzkiza ta Orixe jauna
Lizardi ta Lauaxeta,
beste askogaz batera dira
Euzkadirentzat argia.

Ogei eta bost urteko katei
daroa here soñean,
Ian ta izerdiz txit eratua
Bizkaiko lurren gainean;
zuk nai ba-dozu, salbatuko da
euskera gure lurrean,
zuk nai ba-dozu, edertuko da
euskera here senean.

PAULIN

Deia egunkarian 1992'ko Bagillaren 21'ean

**San Anton parrokian izan zan mezeaz eta
ondorengoko bazkariagaz**

Euskerazaleak Alkarteak zidarrezko ezteguak ospatu zitun atzo

Euskerazaleak Alkartea'k bere zidarrezko eztegua edo 25n. urtea ospatu dau atzo.

Eguerdiko ordu batetan Mezea ospatu zan San Anton Parrokian. Meza-ospakizunaren buru izan zanak, erriaren aldeko ekintzak eta fedearen eginbearrak ondo alkartzen zirala esan eban eta Alkartearen kondairan izan diran geienak beintzat, oso fededunak eta ekintzailleak izan dirala. Ori Alkarte onentzat eredugarri ezarri eban.

Mezea amaitu ondoren, Alkartean kideko edo languntzaille edo adiskide diran 60 inguru batu ziran Urkia jatetxean, alkarteko bazkaria ospatzeko. Giro ederra eta pozgarria an sortu zana eta giro on ondo agertu eben Solozabal'dar Paulin olerkariaren bertsoak.

Bazkal-ostean beste eginkizun eder bat bete zan: Alkartearen sortzaille izan ziran eta gaur bizi diran amar jaun-andrari egun onen gomutagarri dan idazki bat emon jaken, lauki baten sartuta. Ara zer diñon gomuta-agiri onek: "Euskerazaleak Alkartea'k zidarrezko eztegua ospatzean (1967-1992) Sortzaille dan (...) Jaunari (edo Andreari) gomutaki au eskintzen dautso esker onez. Bilbao'n 1992'ko bagillaren 20'an. Lendakariak". Eta onek dira gomutaki au artu ebenen izenak: Oleaga ta Etxebarria'tar Jesus; Erkiaga ta Lastra tar Eusebio; Zelaja ta Ibarra tar Adrian; Gonzalez eta Etxegarai tar Karlos; Zugaza ta Fernandez tar Leopoldo; Bengoa ta Zubizarreta tar Jose Luis; Berrojalbiz eta Berrojalbiz'tar Julene; Zubizarreta ta Ipiñi'tar Fernando; Martin eta Retana'tar Jose Maria; Atxa ta Agirre'tar Jesus.

Omenduai begira Agur Jaunak abestu ondoren, txaloka amaitu zan ospakizun ori.

Alkarteak ez dauz sekula aitzuko 25n. urtea ospatzean izan diran eginkizunak eta adore barriagaz jarraituko dau euskerea zabaltzen eta errian erabilli daiten lan egiten. Bizkai'ko gure euskereak bear dau eta zor jako olako lana. Bejoakiez emendik eskerrik beroenak euren laguntza eta zorion-agurrak bialdu dauskuezan guztiei.

EUSKERAZALEAK

OLEAGA'TAR JESUS 1.º

LENDAKARIAREN BERBALDIA

(ZIDAR-EZTEGUKO BAZKAL-OSTEAN)

Bizkaiko Jakintza-Erakundeen ordezko Jauna,
Jaun-andreak, Adiskideak:

Gure EUSKERAZALEAK erakundea mundura atarateko asmoa ainbat lagunen artean erabagi zan 1967 urteko Maiatzean.

Une areitan, orain ogeitabost urte luze dirala, gure izkuntza maitearen erabilitasuna ta zabalkundea oso bear-bearrezkoak ziran gure ustez.

Egun areitan, geienok dakizuenez, ez ziran errezak orretarako bideak, baña akatz orrein jakitun giñeala, aurrera eroan zan asmoa.

Ni ez noa orain orduko zertzeladak edestutera, aide batetik nik baño obeto besteren batek egitarauak ego-kiagoa gertuta egingo daula ziur nagoalako; eta beste aldetik, ez naizelako ez idazle, ez eta izlari berezia. Onegaz ez dot esan nai, neure bizi luzean zear, egun baten be itzi dodanik euskera egitea oiturazko lanetan, naiz beste nire eginkeretan.

Orregaitik, biotz-biotzeko agurra adierazoaz batera, bakarrik iragarri nai neuke, lenengotariko EUSKERAZALEAK ALKARTEAREN, sortzaile edo irasle tinkoak ziran adiskideen gogoramena. Orduko partaide-etatik eta Jaungoikoaren asmoz, mundu au itxi dabenentzat (goian begoz), neure oroimena. Ezetariko nor-geiagorik euren artean ezarri barik oneik dira:

Jose Maria Olaizola, Jose Antonio Montiano, Juan Ramon Urkixo, Xabier Pella, Miguel Angel Astiz, Jose Maria Makua, jaunak.

Baita baktaxa here lanetan laguntzalle genduzanak be gogoratu nai dodaz:

Ziarsolo "Abeletxe", Arrieta, Izaola, Landajuela, Alkorta, Iriondo, eta abar ta abar.

Baten bat aitzuta geratzen ba'da, parkamena eskatzen dautsuet zueri eta baita euren sendiko diranai, lerro onein bitartez.

Ain urte luzeetan betiko zaletasuna geroago ta sendoago izan daben batzuk, eginbideko lanetan edo batzarkide lez ezin aztu eta euron artean gure Karmelo Etxenagusia (atzo Eskolapioen Ikastetxean gaur Alkartearen Lendakari dogun Zubiri'tar Iñaki'k aipatu eban bereziki) eta gaur egun istripu larriak jota dago eta ezin etorria dau naizta gogo aundia izan berak adierazo eustanez. Aurreko egun baten poz-pezik egoala esan eustan bere itzaldia gertatzen, EUSKERAZALEAK ALKARTE onen zidarrezko ospakizun onetarako. Lenengotariko gure egoitzan irakasle izan zan ta beragaz Makua eta Dañobeitia –au bai beti gazte ta bizkor–, eta ezin aitzu baita Jon Malaxetxebarria, Iñaki Egurrola ta Jose Antonio Retolaza (beronen Kili-Kili'ren arduragaz biak), Imanol, Bitori eta Karmele andra bizkorrak benetan une guztietan. Eta Margari Alonso eta Josu Ormaza irakasleak.

Guzti-guzti oneintzat nire aldetik gogo -onenetariko eskerrak.

Eta amaitzeko, orain len lez, eta aurrerantzarako guk ain maite dogun izkuntzak eta EUSKERAZALEAK Alkartea'k iraun dagien eta guztiak geure Euskalerraren bake eta zorionean bizi daitezcan nire azken itzak oneik dira:

Iñaki Zubiri Lendakari jauna: Eskerrak atzo iluntzeko itzaldian agertu zenduan erabakia dala-ta, eta bene-benetan artu egizu eta adierazo batzarkide guztiai, atsegiñez artu dodala oorezko Lendakaritza. Guztiontzat eta euskerarentzat, poz-pezik opatzen dodala izendatze ori.

Guzti onen ezaugarritzat, or doatsu eta, artu lagun, besarkada sendoa. Agur eta betirarte.

OLEAGA'TAR JESUS'EK

IZKUNTZA BAT BERA DAUKAGU



*Auxe dozu zure betiko
Kutxa. Bere berbea bete
eta zure bear-izanak
ulertzen dauzan Kutxa.
Etorkizunera zabalik dagoan
Erakundea, etenbako
gora-gogoagaz
bere erriko jenteari
laguntza-gai osoak
eskitzen dautsozana.
Beti dago zugandik ur
izkuntza bakar baten
alkar ulertu daikegun.*

1A

Bilbao Bizkaia Kutxa